



ARGIA



Pablo Gonzalez kasua

HAMAR URTEKO ESPETXE ARRISKUA POLONIAN,
KAZETARITZA EGITEAGATIK

26-31. orriak



**Bolloré Afrikan,
35 urtez eraikitako
inperioa**

12 | EKONOMIA



**"Polimaitasunaren
proselitismoa egiten
aritu nintzen"**

16 | GABRIELA WIENER



**'Nola esan/izan
bollera euskaraz'
hiztegia**

32 | SEXUALITATEA

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #274
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



INDARKERIA MATXISTA

ZER EGIN ERASOA GAUZATU DUTEN PERTSONEKIN?

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ILUSTRAZIOA: XABIER SAGASTA


Iritziak

- 21 | DAVID BOU
- 22 | UXUE APAOLAZA
- 23 | ANE LABAKA
- 23 | LEIRE NARBAIZA
- 24 | KIMETZ ARANA

Finkoak

- 38 | DENBORAREN MAKINA
- 39 | ARGIA KOMUNITATEA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGİ-KONTRA: RAQUEL ORGILLÉS
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



34 | NOLA ESAN/IZAN BOLLERA EUSKARAZ.

June Fernandez eta Amaia Alvarez Uriak euskal sortzaileak elkarriketatu dituzte darabilten hiztegi lesbikoa partekatze, aberasteko eta hitz berriak sortzeko zilegitasuna irabazteko.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Afrikako garraiobideen gestioaz bereizi bada ere, 'françafrique' izpiritua biziartzen segitzen du Bollorék
Jenofa Berhokoirigoin

16 | PERTSONAIA | GABRIELA WIENER

"Estutzen gaituenari buruz idatzi behar dugu"
Danele Sarriugarte

26 | KAZETARITZA | PABLO GONZALEZ

Ekaitz perfektuak harrapatuta
Lander Arbelaiz

42 | KULTURA | PUNK ARRASTOAK III

Anarkiatik rave-etara
Iñigo Basaguren-Duarte

46 | KULTURA

(Besteen) Etxeko leihotik begira
Ainhoa Gutierrez del Pozo

Jabetza
Komunikazio Biziagora
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria
Onintza Irureta

Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua
Maitane Gartzandia

Argazkilaria
Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.

Administrazioa
Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte

Salmenta
Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka
Mikel Olabide

Idazkaritza
Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde

Informatika
Iametz interaktiboa, S.L.

Lege gordailua
SS 837-2012

ISSN
0213-909X

Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefona
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametza

ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egile eta aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Euskadi auzolan?

“Euskal Oasian” politikoki zuzenak agintzen du agintarien diskurtsoan: berdintasuna, elkarbizitza, “Euskadi, auzolana”, tokikotasuna, parte-hartzea... Baina praktika hitzetatik oso bestelakoa da, batez ere estrategiko jotzen dituzten proiektuetan. Kontrakotasun minimorik agertuz gero, inposaketa da nagusi. AHT horren erakusgarri. Orain, gainera, jasangarritasun eta ingurumen sailburuaren abizena daraman lege bat ezarri dute EAJk eta PSEk, zeinak ahalbidetzen dien, galdetu ere egin gabe, boteredunen “estrategikotasuna” inposatzea tokian tokiko herritarren, udalen eta mugimenduen nahiaren gainetik. Irudian, *Araba bizirik* Tapia Legearen aurka asteburuan egindako mobilizazioa Gasteizen.



Luxuzko hotela Donostiako Arte Ederretan

LANDER ARBELAITZ MITXELENA

Gauza jakina zen Donostiako Arte Ederren eraikinean turismoarekin loturiko negozio bat prestatzen ari zirela, baina sekretua zen atzean nor zegoen. Hilton hotelen multinazionala da, beren urteko lehen hiruhileko balantze ekonomikoan lerro batean aipatu dutenez. Eraikinaren jabe zen Sade enpresak hamarkada ugaritan ia erortzen utzi ostean, behinola zinema eta Donostiako orfeoiairen egoitza izandako eraikin ikonikoa luxuzko hotel bilakatuko dute.

Lehen hiruhilekoan 211 milioi dolar garbi irabazi dituela nabarmentzen duen txostenean, hiruhileko honetan abian jarri diren bi eskaintza nabarmentzen dira, Curio Collection Hilton markapean. Hauek dira: Ekuadorren Royal Palm Galapagos, eta Donostian Arte Ederren Jauregia.

1914an eraikitako eraikin ikonikoa, horrenbestez, hiriak galduko duen ondarearen parte bilakatzeaz da. Bere garaian esan zuten 84 logela eta lurpeko parking robotizatua izango duela. Sade enpresak dena eraitsi du kanpoko fatxada izan ezik, eta adierazi dute horren singularra zuen kupula berreraikiko diotela.

Protesta ugari izan dira eraikina hotel bilakatzearen aurka. Ondare arkitektonikoaren aldeko Ancora elkarteak eta hiriko beste hainbat taldek sinadura bilketa eta mobilizazioak egin zituzten, eta Arte Ederren eraikina botatzea "marra gorria zeharkatzea" zela adierazi zuten. ICOMOS sareak "nazioarteko alarma" jo zuen eraikin hau suntsitzearen aurka.

Protesta ugari izan dira eraikina hotel bilakatzearen aurka. Arte Ederren eraikina botatzea "marra gorria zeharkatzea" dela adierazi dute

Eneko Goia Donostiako alkate denez, 50 dira ireki edo onartu dituzten hotelak hirian.

Duela sei urte, Donostiaren elitizazioa azeleratzen ari da erreportajeen jorratu genuen gerora nabarmen geratu den prozesu hau hirian izaten ari den eragina. ●



GORKA RUBIO / FOKU

DSBE lege berria EAEn

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Jaurларitzak Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Lege-proiektua onartu du eta Legebiltzarrean aurtengo urte bukaerarako onartuko dela espero da. Jaurларitzaren esanetan, lege berriak jende gehiagori emango dio estaldura eta prestazioa jasotzen duen bakoitzak diru gehiago jasoko du. LAB sindikatuak salatu du "sistema ez dela arrakastatsua" eta gutxieneko soldataren neurritik parekatu behar dela prestazioen zenbatekoa. Legebiltzarrean duela astebete atea itxi zioten Baldintzarik Gabeko Oinarrizko Errenta herri ekimenak "aukera historikoa galdu dela" berretsi du.

Jaurларitzaren hitzetan, "egoera kaltebera guztietan hobetzen da. %40rainoko (igoera) adingabeak dituzten familien kasuan, eta %17rainokoa pentsiodunen kasuan. Estaldura hobea eskaintzen du tratu txarrak jasan dituzten edo esplotatuta dauden emakumeen, desgaitasunen bat duten pertsonen, errefuxiatuen, eta alde egitera behartuta eta itzuli nahi duten terrorismoaren biktimen kasuetan". Jasoko den diru kopurua urtero eguneratuko dute KPlaren eta aurrekontuen arabera, eta gutxieneko diru sarrera hartuko da oinarri (491,63 euro da oinarria aurtengoa). Bakoitzak osagarriak jasoko ditu bere ezaugarri eta baldintzen arabera. Horrez gain, Jaurларitzak dio prestazio ekonomikoaren kudeaketa sinplifikatuko dela.

LAB sindikatuaren ustez, aurreproiektuaren abiapuntua "okerra" dela: "Idoia Mendia egungo sistemaren 'arrakastaz' mintzo zaigu eta LABen ustez diagnostikoa guztiz kontrakoa da. Egun EAEn dugun babes sistemak ez die pobrezia eta prekarietate sozial egoerei aurre egiten. Porrot egin duen ereduak da, egungo egoera kronifikatzen duen sistema den heinean. Eredu asistentzialista oinarrituta, urtez urte diru kantitatea murriztuz eta sarbide baldintzak gogortuz, eskubide gisa murriztuz joan den prestazioa izan da DSBErena". LABentzat, "prestaziook Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren neurritik parekatu behar dira. Etxebizitza partekatuta ere, eskaria egiten duten pertsona bakoitzak jaso behar du prestazioaren kopuru osoa eta errola eskakizuna urtebetara luzatu behar da gehienez". ●

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Ehiztari-biltzaileak



ARITZ GALARRAGA

Zalantza izpirik ez dago, ordea, literatura pixka bat irakurri dutenen artean bederen, Alice Zeniter idazleak baieztatzen duen honen inguruan: “sexu desberdintasun arazo handi bat dago kontakizunetan”. Alegia, eta grosso modo, gizonezko pertsonaia, zer esanik ez protagonista askoz, baina askoz gehiago dagoela literatura kontakizunetan, emakumezkoak baino. Literaturaren hasieretatik, ulertzen da, Aristotelesekin esaten baitzuen *Poetika*-n, brotxa lodia erabilia berriz, istorio on bat, gauzak, preferenteki gauza biolentoak egiten dituen gizonezko nabarmengarri baten istorioa dela. Zeniter: “Istorio on bat, gaur egunean oraindik, hori da maiz, gauzatxoak egiten dituen tipo baten istorioa”.

Je suis une fille sans histoire izeneko liburuan esaten ditu halakoak, eta, ondorioz, istorio mota bat pribilegiatzearekin, beste istorio batzuk, bestelakoak, baztertu izan direla historian zehar, isilarazi. Giza espeziearen lehen pausoei buruzkoak, adibidez, irudikatzen baita historiaurrean, kobazuloen garaian, denak zirela ehiztari. Ursula Le Guinek galdetzen du nola gure zibilizazio ehiztari-biltzailea bilakatu ahal izan den soilik ehiztarietz hitz egiten duten kontakizunen abaro, haragiak elikaduraren zati txiki bat baino hartzen ez bazuen –kalkulatzen da gizakien elikagaien %65-80 zela, ez ehizatu, baizik eta bildutako jaki-. Zeniter, berriz: “ehiztarien istorioak entzutearen poderioz, ahaztu ditugu biltzaileak, eta bizi-haragi ekuazio modu bat osatu dugu, zeina ez den inondik inora elikagaien balio nutritiboaren ondorio, kontakizunen forma seduzitzaileena baino”.

“Ezin dut gehiago ehiztarien kontakizunez, gauzak egiten dituzten gizon nabarmengarriez”. Bat nator. Ehiztariak bakarrik ez, biltzaileak ere izan zirelako, are ehiztari-biltzaileak, eta ez bat ez beste izan zirenak, edo ezin zutenak, alde edo moldez isilaraziak guztiak. Den-denek dute lekua kontakizunetan. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

ERRAUSKAILURIK EZ,
AHT-RIK EZ,
URDAIBAICO
GUGGENHEIMIK EZ,
SUPERSURRIK EZ,
FRAKINGIK EZ..
...BAINA ZERTAN NAHI
DUTE DIRUA XAHUTU
DEZAGUN, ORDUAN!?



ADUR

Ikusmena

Braillea euskaraz irakurri eta idazteko lehen metodoa aurkeztu dute. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza sailak “Punttuka” metodoa aurkeztu du: Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako materiala da, bai tintaz bai Braillez, eta Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroko (CREENA) Ikusmen Taldeak egin du.

Datuak

Echo aparailuekin zuri entzundakoa beste batzuei saltzen die Amazonek. Informatikari talde batek ikerketa argitaratu du: ahots aginduei erantzuten dieten aparailuek entzun egiten zaituzte, horren arabera zure jarraipena egiteko, baina ustez ziurtatzen duten baldintza bat hautsiz: beste batzuei pasatzen dizkiete datuok.

Presoak

32 urte ondoren, prokuradorearentzat “goiz” da Ion Parot askatzeko. Joan den astean, Ion Paroten alde galdetutako 6. baldintzapeko askatasun eskaera aztertu du Terrorismoaren Aurkako Parisko auzitegiak eta, espero bezala, prokuradorea kontra agertu da, bere ustez preso ateratzeko goiz dela argudiatuta.

Arkiwhashing



ULA IRURETAGOIENA

Ez ezazue bilaketarik egin, arkiwashing nik asmatutako hitza da, arkitektura zuritze eta soluzio huts gisa erabiltzen den uneetarako ahortzekoa. Izan ere, eraikin publiko bat eraikitzea politika egiteko modu gisa ulertu izan da, eraikin batek bere horretan eraldaketarako pilula magikoa izango balu bezala. Proiektu batzuek espazio bat halabeharrez behar dute, batzuetan proiektua bera hazteko, besteetan behin proiektuak forma duenean. Proiektu sozial, kultural eta politikoez ari naiz. Eraikin eta arkitekturaren botere eraldatzailean sinistu arren, arkitektura eta proiektuaren elkar-lanketa egon ezean, promozio hutsa izan daiteke, eta arkitektura egitea diru-inbestitze handiegia da marketin-tresna gisa erabiltzeko.

Donostian gehien irakurtzen den komunikabidearen eskutik jakin dugu Donostiako Gros auzoan BCC Basque Culinary Center eraikin berri bat egingo dela. Hainbat render argitaratu dira –pornografia arkitektonikoa deitzen diogu arkitektura jargoian–. Asmatuko zenutenez, berria asteburuko vermouterako elemente arkitektonikoa izan da. Miramonen dagoen BCC berriaren bikia izan nahi du, Miramonekoa plater metaforarekin egin, Grosekola olatuena erabiliz. Ohitura galdua genuen arkitekturak foku mediatiakoa bereganatzea, sona handiko arkitekto bulego baten oihartzunarekin hiri erdiguneko ikono bat sortzearen errezeta zabaltea. Iraungita dagoen elikagai baten antzera begiratu diogu eraikinaren formari eta marrazkiari, polita baina eraikigarriak ez diren xehetasunei, aurrekontu eskasarekin egingarria ez den emaitza bati.

Baina eraikin berriaren mehatxua ez da broma bat eta Manteoko bizilagunen artean sinadura bilketan hasiak ziren berria atera baino lehen, espazio libre gutxiko auzoan arnas-espazio lapurreta gauza serioa delako. Donostiako Plan Orokorraren berrikuste prozesua parte-hartze fasean da une honetan eta beraz, aldrebeskeriak zer-nolako neurria hartuko duen, oraindik airean dela pentsatu nahiko nuke. ●



Egun batez plaza bat irabazi hizkuntz gatazkari

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Ekainaren 4an euskarak eta euskarazko sormen lanek hartuko dute Ziburuko plaza egun oso batez. Hilabete lehenago Célibe Mounolek herriko lehen idazleari buruzko hitzaldia eman zuen Herriko Etxean, gela bete jenderen aurrean, Joanes Etxeberri ahanzturatik ateratzeko xedez.

XVII. mendeko lehen erdialdean, euskal literaturaren pizkunde famatuko kideetako bat izan zen, eta Axularrek eman zion oniritzia honen liburuetak bati argitaratu zedin. Ziburun, Saran eta Donibane Lohizunen erretu zen pizkunde hartan ere euskaraz idaztea ez zen eroso, idazleek erasoak jasaten zituzten, Mounolek azaldu zuenez. Horregatik eskatzen zioten babesa elizako eta herriko jaun boteretsuei, liburuen sarrera hitzetan: argitaratu ostean etorri ahal ziren kolpeetatik babesteko. Hizkuntza gatazka agerikoa zen garai hartan ere, eta Etxeberriren ohorez bertsoak jarri zituen Irigoiti medikuak hala idatzi zuen: “Aspaldion zegoena guztiontzat azpiko /Etxeberri altxaturik goren mailan da jarriko. / Euskaldunak hel bekizkit haren ohoratzer / zeren euskara eman duen erdararen gainera”.

Mounolek azaldu zuen euskarazko liburugintza kontraerreformak sorrarazi zuela. Trentoko Kontzilioaren ostean Eliza Katolikoak euskarazko liburuak sustatu zituen, kristautasunaren doktrina zabaltzeko eta herritarrek fedearen arrastoan sartzeko. Horregatik dute gai erlijiosoa euskarazko garai hartako testuek. Mounolek Etxeberriren testuak irakurri zituen, bertsoz emanak direnak, eta laikoei ere gozagarri gertatu zitzaizkien. Izan ere, eguneroko bizitzako une zehatz bakoitzarentzat sortu zuen errezu bat, eta beraz, zehaztasun handiz erretratatu zituen eguneroko pasarteak. Bere bertsoen artean nabarmentzen dira arrantzaleentzako berariak jarri zituenak: garai hartan balea arrantzatzeko zeharkatzen zuten Atlantikoa ziburutar arrantzaleek eta eginkizun horietan zituzten gorabehera arriskutsuak kontatu zituen, koadro baten aurrean bageunde bezala eszenak ikusgarri eginez. Plazer duenak, hitzaldiaren kronika eta Etxeberriren hainbat testu irakurgai dauzka argia.eus webgunean, Ziburuko Liburu eta Disko Azokaren kanalean (www.argia.eus/ziburuko-euskal-liburu-eta-disko-azoka).

Publikotik kide batek oroitarazi zuen Etxeberri apaiza bizi izan zen garai historikoan erre zituztela Ziburuko sorginak. Mounolek galdera hau utzi zuen airean: “Zinez aztertzekoa litzateke gure idazle horiek zer jarrera izan zuten inkisizioaren ekintzen aurrean. Ez zuten horretaz deus idatzi”.

Ederra izango da ekainaren 4an Joanes Etxeberriren herrian eta euskal literatur pizkundearen parajea, oraindik Euskal Herrian errealtatea den hizkuntza gatazkari egun batez plaza bat irabaztea. Egungo eta betiko ortodoxien begietatik sorginen sutara botatzekoak liratekeen sei libururen aurkezpena dastatuz, eta mahairik mahai euskarazko sormen lanekin gozatuz. ●

431

elektrizitate dorre eraikitzearen aurka agertu dira ia 200 elkarte. Nafarroa eta Gipuzkoa artean, Barasoain eta Gabiria lotuko dituzten 80 metroko 431 elektrizitate dorre eraiki nahi dituzte REE Espainiako Elektrizitate Sareak eta Forestaliak.



“Auzo eta herrietan sare ireki, neutro, aske eta publiko-komunitarioak garatzeko asmoa dugu”

EH KOM

EH Kom sortu dute, Euskal Herrian telekomunikazio sare publiko-komunitarioak hedatzeko.

2022-05-12

%15

handiago da Iruñeko haur eskoletako euskarazko eskaria, udalak dioenarekin alderatuta.

Hala salatu du

Haur Eskoletako Gurasoak elkarteak, aurrematrikulen zerrendetan udalak emandako datuei erreparatuta.

“EUSKARAK AURRERA EGINGO BADU, MILAKA EUSKALTZALEREN KONPROMISOARI ESKER IZANGO DA”

Maiatzaren 21eko “Euskara aurrera” manifestaziora deitu du euskalgintzako hainbat eragilek.

2022-05-11

10

urte bete ditu gurasoei eta hezitzaileei

zuzendutako *Hazi Hezi* aldizkariak, eta mugarrira ospatzeko itxuraldatuta eta indarberrituta dator.


Maiatzaren 29an festa egingo dute Adunan.

“Finlandia NATOn sartzen bada, Errusia erantzunerako neurri militar eta teknikoak hartzera behartua izango da”

SERGUÉI LAVROV

Errusiako Kanpo ministroa.

2022-05-13



Balioa eta prezioa



DIANA FRANCO

Azkenaldian bazterkeria egoeran dauden pertsona askoren mugikorrak pasa dira nire eskuetatik, eta ohartu naiz gailuaren prezioa eta pribatutasunaren konfigurazioa egiteko aukerak harremana dutela horietan. Gailu merkeenak pribatutasuna doitzeko aukera gutxiago ematen dio erabiltzaileari. Gainera, defektuz, hirugarrenen hodeietara datuen sarrikerak zuzenean bideratzen dituzten aplikazioak dituzte instalatuta. Hala nola teklatua, mikrofonoa, kamera... Sentsore eta botoi horiek jasotako datuak eurenganatzeko aukera ematen diete aplikazioaren jabeek.

Mugikor adimentsu merkeen merkatua asko hazi da, munduko biztanleriaren %67k du sarrera internetara (Nazio Batuen eta Telekomunikazioen Nazioarteko Batasunaren datuen arabera). Marka ugariatako mugikorrak dira: Oppo, My Phone, Redmi... Interresgarria da jakitea jabeak enpresa txinatarrek direla. Prezio merkeko mugikorrak saltzeak balio handia izan behar du, enpresa/gobernuztat, lortzen duten errentagarritasunak prezio baxua konpentsatzeko.

Aste honetan eztabaida izan da @HezkuntzaLibre Telegram taldean, gai honen inguruan, Google enpresak eta hezkuntza sailak sinatu duten hitzarmena dela eta. Hitzarmenarekin doako zerbitzua emango dio Google-k hezkuntzari hurrengo lau urteetan. Baina zein da Google-entzat balioa? Prezioa doako izateak ez baitu esan nahi etekinik ez dagoenik zerbitzua ematen duen enpresarentzat.

Eraldaketa digitalak etekinak sortzeko beste logika batzuk ditu, hauek oraindik ez ditugu guztiz ulertzen, baina Antonio Machado poetak esan zuen bezala, ez gaitezen ergelak izan, eta ez dezagun balioa prezioarekin nahastu. ●



Shireen, Yesenia, Sheila eta Francisca

AXIER LOPEZ

Lau emakume kazetari tiroz hil dituzte aurreko astean tokian tokiko mafien eskutik. Lehena, munduko apartheidik handieneko kudeatzaileen eskutik. Al Jazeera-ko Shireen Abu Akleh kazetari palestinarra hil dute asteazkenean Israelgo soldaduek buruan tiro bat emanda, Jeningo errefuxiatu-esparruan sarekada egiten ari zirela. Qatarreko hedabidearen, Palestinako agintarien eta han bertan zeuden lekuko eta kazetarien arabera, Israelgo indarrek nahita hil zuten 51 urteko kazetaria. Ali Samudi kazetaria ere zauritu zuten ekintza berean. Munduan zirrara eragin du gertatutakoak eta besteak beste, NBEko idazkari nagusi Antonio Guterresek ikerketa independentea eskatu du. Ez da bakarra izan ikerketa sakona eskatu diena Israelgo agintari sionistei, baina keinu hutsak baino ez dira izango ikerketa Israelen esku uzten bada, Israelgo sistemari ezin zaio-lako eskatu beren burua ikertzea eta haien jarduna ezbaian jartzea, 70 urte baino gehiagoz giza eskubideak etxeko alfonbra gisa erabili baitituzte. E-maila ezin da bestelakoa izan formula bera erabiliz gero.

Eta, zalantzarik bazegoen, segituan utzi du argi Israelek "nork agintzen duen" eta zeinena den inpunitatea. Israelgo poliziek Abu Akleh-ren hilketa lepoan hartuta eramaten zutenen aurka egin dute haren hileta elizkizunenetan. Aitzakia: Palestinako banderra erakustea, Israel demokratikoan kolore horiek ez dituztelako publikoki erakusten uzten. Gobernua ohiko

harrokeriaz mintzo izan da: "Israelen aurkako propaganda faltsuak ez ditu Israelgo Segurtasun Indarrak geldiaraziko terrorista palestinarren aurkako jardunean", adierazi du Naftali Bennett lehen ministroak igandean.

Palestina okupatutik kazetariak lana libre egiteko munduko lekuri zailenak batera egingo dugu jauzi: Mexikora. Yesenia Mollinedo eta Sheila Johana García kazetariak hainbat tiro jaso zuten Veracruz estatuan, Mexikon, denda batetik irten eta autoa hartzera zihoazela. *El Veraz* hedabideko zuzendaria eta argazkilaria ziren, hurrenez hurren. Mollinedoren senideek salatu dute mehatxuak jaso izan dituela azken urte eta erdian egin dituen lanengatik. Poliziaren eta delinkuentzia antolatuen arteko harremanari buruz idatzi izan du. Honezkero hamaika kazetari hil dituzte Mexikon aurreko hamabi egunean behin, kazetari bat hiltzen dute. Artículo 19 erakundeak 153 kazetariren hilketak dokumentatu ditu Mexikon mende honetan.

Mexikotik Txilera. Aurreko asteazkenean Francisca Sandoval kazetariaren heriotzaren berri eman zuten. Txileko Santiagon Maiatzaren 1eko protestak kubritzen ari zela, Sandovalen tiro bat jaso zuen buruan. Ordutik ospitaleratuta zegoen, oso larri eta 12 egunera hil da 29 urteko kazetaria. Tokiko mafiekin lotutako taldeen bala bat zen. Beste hiru pertsona ere zauritu zituzten. Pinocheten diktaduraz geroztik Txilen hil duten lehen kazetaria da Francisca Sandoval. ●



Miren Jone Azurza

Euskal kazetaritza modernoan giltzarri

ERREDAKZIOA DANI BLANCO

Miren Jone Azurza Aristigietak hil da, 92 urterekin. Donostian jaioa, euskal kazetaritza modernoaren aitzindarietako bat izan zen, baita euskal hedabide bat zuzentzen zuen lehen emakumea ere. Zeruko ARGIAko zuzendaria izan zen frankismoaren azken txanpan, 1969-1975 artean. Gerora ere kazetaritzan jarraitu zuen beste hamarkada batez, *Deian*.

Donostiako Antigua auzoan jaioa, Gas-teizko Misiolari Sekularren egoitzan sartu zen 1950eko apirilean. Hamarkadaren amaieran, *Vida Nueva* aldizkari katoli-

koan idazteko proposamena egin zioten. Urte pare bat kazetari jardun ondoren, titulua ateratzea erabaki zuen.

Kazetaritza ikastera Madrilera joan zen 60ko hamarkadaren hasieran: "Hiru urte egin nituen, ez nuen ezer ikasi baina titulua lortu bai. Hala ere, hango giroa arrotza zen. Ni beti izan naiz euskalduna eta aber-tzalea, han ez nenbilen oso gustura eta Donostiara itzuli nintzen lanari ekiteko-tan". Etxean Zeruko ARGIA erosten zuten eta aldizkariko fraideei ere berehala utzi zien bere txartela; hauek handik bi urtera deitu zuten. Andoni Iturria zen orduan

zuzendari eta Azurza erredaktorea, baina hark utzi zuen eta 1969an kaputxinoek azken honi eskaini zioten zuzendaritza. Aldizkariaren 400. zenbakia egin zuten 1970eko azaroaren 1ean eta zenbaki be-rezia eginez ospatu zuten. Aldizkariaren norabidea zela-eta izan zituen desados-tasunak tarteko, Zeruko Argia utzi zuen eta Historia ikasketak egin. *Deia* egunka-rian ere aritu zen lanean, eta beste zenbait hedabidetan kolaboratu zuen. 1990etik 1996ra. Ibilbide profesional horretan egindako lan guztiagatik, hainbat sari eta aitortza jaso zituen.

Ugutx Robles-Arangiz

Kulturgintzan eta umoregintzan aitzindari



KIKE AMONARRIZ DANI BLANCO

Ugutx Robles-Arangiz umorista eta txis-te kontalari beskoiztarra zendu da, 83 urterekin. Kike Amonarrizek eskaini diz-kion hitzak ekarri ditugu hona. Argia-eus-en irakurri dezakezu osorik.

ARGIArako txisteak idazten hasita nengoela jakin nuen, 80ko hamarkada hasieran, Iparraldean "Irri gauak" egiten zituztela. Halaxe bururatu zitzaigun Tolo-san lehen txiste-afaria antolatzea 1982an. Ugutz zen formula berritzaile haren arima.

Handik urte batzuetara eskuratu nuen bere txiste-kasetea. Euskaraz kaleratutako lehen txiste-kasetea inondik ere. Atentzioa eman zidaten haren kontaerak, bere ahots lodi eta sakonarekin egiten zituen jolas eta imitazioek, eta zerabilen lapurtera gozo eta aberatsak. Txiste eta pasadizo haietan, itzaltzen ari zen mundu baten lekukotza zuzena eskaintzen zuen. Askok gozatu nuen entzunaldi haietan, eta baita ikasi ere.

Urte batzuk beranduxeago, *Txiskola* programa lantzen hasi ginenean, epai-mahai buru izateko ezin proposagoa iru-

ditu zitzaigun Ugutz: pertsona heldua eta sekulako planta zuena bere bibote zuri dotorearekin, txiste-kontalari trebea, eta Iparraldeko euskararen doinuen presen-tzia segurtatuko zuena. Halaxe izendatu genuen *Barretza India* hartako buru.

Bi urte zoragarri izan ziren. Giro ezin hobea geneukan taldean, eta tertulia-tarte ederrak izan ohi genituen, bai entsegue-tan, eta baita programara zetozen gonbi-datuekin ere. Eta tertulia haien protagonista eta "gai-jartzaile" nagusi, Ugutz! (...)

Izan ere, Ugutzzen bizitza ez zen nola-nahikoa izan. Haren gurasoek eta fami-liak, gerratik ihesi, Iparraldean bizitzen jarri behar izan zutenen pasatako zail-tasunak eta sufritutakoak oso gogoan zi-tuen. Aita, besteak beste, EAJko diputatu izan zen Madrilan eta ELA sindikatuaren sortzaile eta buruetako bat. Ugutz, beraz, 1939an, "bestaldean" jaio zen, Bidarten, nahiz eta handik gutxira Beskoitzera joan. Eta gaztetan Bilbora itzuli bazen ere, berak ere, Beskoitzera ihes egin

behar zuen, arrazoi politikoak tarteko.

Kantari ederra zen Ugutz. Bere seni-tarteko gehienak bezala. Euskal musikan arrasto sakona utzi dute Robles-Aran-giztarrek, eta benetako aitzindariak izan ziren. (...)

Bitxia suertatu zitzaigun denoi, *Goen-kaletik* deitu ziotenean, pertsonaia gaizto eta maltzur baten papera eman izana. Ez zen oso eroso ibili paper hartan. Antzeko zerbait gertatu zitzaion urte batzuk ge-roago Pantzo Irigarairi. Umorez, askotan aipatzen zuen Iparraldeko umoregileak gaiztagin bilakatzen zituela serieak.

Azken urteotan, gutxitan egokitu nin-tzen berarekin. Gehienetan, euskararen inguruko ekitaldiren batean edo manifes-tazioren batean. Eta beti umoretsu bezain kezkatu, herri hau errailetan eta erraie-tatik bizi, maite eta sufritzen zuelako. Eta horrenbeste maite zuen Euskal Herriari, abestiak, umorea, antzerkia, militantzia, txisteak eta pasadizoak eskaini zizkion -eskaini zizkigun-, besteak beste.

AFRIKAKO GARRAIOBIDEEN GESTIOAZ BEREIZI BADA ERE, 'FRANÇAFRIQUE' IZPIRITUA BIZIARAZTEN SEGITZEN DU BOLLORÉK

Ipar Euskal Herrian behintzat, ezaguna da Vincent Bolloré –Frantziako hamalagarren pertsona aberatsena eta mundu mailako 538garrena–, besteak beste, Frantziako komunikabide gehienak haren esku artean dituelako. Bere aberastasuna, hein handi batean, 1980ko hamarkadaz geroztik Afrikan garaturiko aktibitate eta tratu finantzarioei esker osaturikoa du. 5.700 milioi euroren truke saldu berri du Bolloré Africa Logistics negozioa, kontinentean barrena dituen portu, bide, terminal, ubide, biltegi eta trenbide sare estrategiko eta politikoa MSC enpresaren esku utziz.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Hogeita hamasei urteko abentura finantzarioari bukaera eman dio 5.700 milioi euroko txekearren truke Vincent Bolloré frantses dirudun ospetsuak. Bolloré Africa Logistics negozioaz bereizi da, Afrikan zituen portu, trenbide, ubide, biltegi, industriarako logistika eta autobide terminalak Mediterranean Shipping Company (MSC) konpainia italiar-suitzarrari salduz. Frantziako hamalagarren pertsona aberatsenak –538. munduan– anitz zor dio kontinente horri: "Bolloré taldearen aberastasunaren gehiengoa Afrikatik dator. Hogeia urtean, Vincent Bollorék erresuma bat eraiki du Frantziako inperio kolonialaren hondakinetan", irakurri dezakegu *Mediapart* komunikabidearen 2009ko *Comment Vincent Bolloré s'est taillé un empire en Afrique* ("Nola inperio bat eraiki duen Vincent Bollorék Afrikan").

Konkretuki, Afrikako hogeia bat estatutan presente da konpainia, 250 filial ezberdinen bidez: portu bidez Ginean, Sierra Leonan, Liberialan, Boli Kostan, Ghanan, Togon, Beninen, Nigerian, Kamerunen, Afrika Erdiko Errepublikan, Gabonen, Kongon eta Komoreetan; autobide terminal bidez Senegalen, Ginean, Sierra Leonan, Boli Kostan, Liberialan, Togon, Kamerunen, Gabonen eta Kongon; porturako sarbideen bidez Burkina Fason, Kamerunen, Gabonen, Ghanan, Kenyan, Ginean, Nigeren, Malin, Nigerian, Ugandan, Tanzanian, Afrika Erdiko Errepublikan, Kongon, Txaden eta Malawin; trenbideen bidez Boli Kostan, Burkina Fason, Kamerunen, Beninen eta Nigeren –orotara, 2.700 kilometro burdinbide, 2,6 milioi tona merkantzia garraio eta 1,8 milioi bidaiari urtean–. Bulego zein biltegiei dagokienez, guztira 7,5 milioi metro koadro dauzka Afrikan gaindi. Bestelako aktibitate eta enpresen bidez,

kontinenteko 55 estatuetatik 46tan du eskua sarturik frantses miliardunak.

1986an erosi zituen kolonialismo garaian hazitako Scac –itsas-garraioan eta petrolio-banaketan bereziturikoa– eta Socopao –Afrikako portuen sozietatea– enpresak, zerrenda luzeko lehenak izandakoak. Zehaztu beharra dago Munduko Bankuak eta Nazioarteko Diru Funtsak 1990eko hamarkadan kontinente horri inposaturiko pribatizazio logikak hein handi batean ase zuela Bolloréren gosea. Kakaoa, palma olioia, kafea, kotoia, mineralak, egurra... lehen sektoreko ekoizpen anitz ditu esku artean, eta garraioan eta bereziki portuen gestioari esker, horien esportazioa errazkiago kudeatu dezake.

Horretaz guztiaz bereizteko hitzarmena martxoaren 31n izenpeturik, goazen hurbilagotik begiratzera presentzia horri. "Hamasei portu eta hogeia bat itsasorako terminal kudeatzen ditu Bollorék. Irabazi handiko aktibitatea, jakinik Afri-



AFP

FRANÇAFRIQUE

Vincent Bollorék harreman hurbilak ditu Afrikako agintari eta kargudun anitzekin, eta horri esker lortu ditu kontratu ekonomiko anitz. Adibidez, argazkian ageri da Gineako presidente Alpha Condéekin –harreman hori dela eta, ustelkeriagatik epaituko dute laster Bolloré–.

kako inportazio eta esportazioen %92 itsasoz bideratzen dela. Portuen kontrolak komertzioaren kontrola dakar Afrikan", entzun daiteke *Le Media*-ren *Françafrique: les réseaux Macron ont-ils eu la peau de Bolloré?* ("Françafrique: Macronen sareak Bolloré akatu al du?") dokumentalean. Baina zergatik saldu nahi izan du aberastasun handia zekarren aktibitatea –2021ean 2.000 milioi euroko etekina, Bolloré talde osoarena 24.000 milioi eurokoa izan zenean–?

Françafrique terminoarekin izendatzen da Frantziak Afrikako bere kolonia ohiekin mantentzen dituen ezkutuko harreman diplomatiko eta ekonomikoak –neokolonialismoaren sinonimo gisa erabili dezakegun nozioa dugu–. Bolloré taldea luzaz izan da logika horren parte, eta are gehiago, Frantziaren kolonia ohiez gain, Ingalaterrarenetan ere kokatu da. "Vincent Bolloré errezipitzaek Frantziako Errepublikako pre-

Ustelkeria kasuen harira, estatuen "burujabetza kaltetzeagatik" eta "ordenu publiko eta ekonomikoan nahasmenduak eragiteagatik" epaituko dute

sidentearen belarria zeukan arduradun bat errezipitza erran nahi zuen afrikar presidente askorentzat", irakurri daiteke *Le groupe Bolloré tire un trait sur l'Afrique* ("Afrikatik badoa Bolloré taldea") artikuluan. Eta gauza bera Pa-

riseko agintarientzat ere: "Nicolas Sarkozyrentzat baita bere ingurukoentzat bera izan da kontinentera heltzeko sarbide bakarra: ezagutzen zituen gizonak, sareak eta finantza zirkuituak".

Hots, eskaintza deialdi ofizialestatik pasa gabe, jaso izan ditu portu, trenbide ala autobide terminal anitz Bollorék. 2008an *Libération* egunkariari konpainiako zuzendari Gilles Alixek erantzundakoak ongi azaltzen zigun giroa: "Ministroak, guztiak ezagutzen ditugu han, lagunak dira. Beraz, artetan, ez direlarik gehiago ministro, eskaintzen diegu gure filialetako administrari izateko aukera, haien itxura garbitzeko, nonbait. Eta badakigu egun batez berriro ministro bihurtu daitezkeela...".

Baina badirudi Frantziako Gobernuan hurbilekoak ukanik ere, itzala egiten dion bat badaukala: Eliseoko idazkari nagusi Alexis Kohler. Kargu politiko horrez gain, Afrikako negozioetan

lehiakide izandako MSC konpainian goikarguak eta ahaidetasun-loturak ukandakoa ere da –funtsean, ustelkeriaren kontra dabilen Anticor elkarteak Kohleren kontra jo zuen 2018an, MSCrekilako harremanen harira, "legez kanpoko interesa hartzea", "influentzia trafikoa" eta "ustelkeria pasiboa" leporaturik-. Alta, espero zuena baino txeke potoloagoa eskainirik, horri dio saldu Bolloré Africa Logistics...

USTELKERIA KASUAK

Ustelkeria kasuak bat baino gehiago ukan ditu hiru hamarkadetan zehar Bollorék ere. Azkena eta potoloenatarikoa, 2013az geroztik irekia den afera bategatik epaituko dute laster, estatuen "burujabetza kaltetzeagatik" eta "ordena publiko eta ekonomikoan nahasmen-duk eragiteagatik". Alta, erruduntasuna aitortu eta 12 milioi euroko isuna ordaintzea onartu zuen, epaiketa saihes-teko gisan, baina epaileak ez zion hala-korik onartu iazko otsailean, "leporatu-takoaren larritasuna" dela eta. Zehazki, Gineako lehendakari ohi Alpha Condé eta Togoko presidente Faure Gnassingbéren kanpoinarako aholkularitza

Afrikan kokatuak diren Canal+, MultiChoise eta Havas komunikazio eta komunikabide konpainien jabetza dauka Bollorék

eta komunikazio zerbitzuak gutiago ordainarazi zizkien, trukean, Konakryko eta Lomeko portuen gestioak lortzeko. Bost urteko kartzela-zigorra arriskatzen du Bollorék.


Beste bi aipatzearen, Burkina Fason ere justiziaren aitzinean du konpainia, 2018an ilegalki urrea garraiatzeaz akusataturik –500 milioi euroko iruzurra-. Kamerungo Kribiko portuko terminala eskuratzeko baldintzak ikertzen

dabil ere Finantza Ministerio Publikoa 2020ko urriaz geroztik.

Auzi batzuk –eta horren ondorioz negozio batzuk– galdu izan ditu iraganean: Beningo Cotonou Boli Kostako Abidjani lotzekoa zituen trenbidearen berreraikuntzaren kontratua baliogabetu zion epaileak, aurretik ofizialki burutu eskaintza deialdian irabazle ateratako enpresari bideratuz. Guztia anitz da eta itzal horretaz bereizi nahia ere dugu konpainia saldu izanaren arrazoiaren –bere kontrako hamaika protesta eta kanpaina izan ditu, ingurumenari egindako kalteak edota langileen eskubideen urraketak direla eta-. Noski, boteretsua bada ere, beste boteretsu batzuk baditu Afrikako merkatuan –bereiziki txinatarrak eta emirerritarrak– eta geroz eta zailtasun gehiagorekin nagusitzen zaie. Hori ere da beste arrazoi bat.

HAATIK, KOMUNIKABIDEEN KONTROLAREKIN SEGITZEN DU

Hala eta guztiz ere, Afrikan segitzeko asmoarekin dabil Bolloré enpresa eta hori komunikabideen eta komunikazioaren sektorean inbertituz. Hiru aipatzearen, kontinentean presente diren Canal+, Mul-



MERKATUAREN KONTROLA

Bulego zein biltegiei dagokionez, orotara 7,5 milioi metro koadro dauka kontinentean gaundi. Lehen sektoreko ekoizpenen bideratzeko erraztasuna dakar portu, bide, trenbide eta terminalen gestioaren jabetzak.



200 URTEKO ABENTURA

Duela bi mende sorturiko enpresa ttipia erraldoia bihurtu da urtez urte. Vincent Bollorék erretreta hartu du aurten eta Cyrille 36 urteko semeari pasa dio lekukoa. Konpainiaren zuzendari berria da. 24.000 milioi euroko etekina egin zuen Bollorék iaz.

AFP

tiChoise eta Havas konpainiak dauzka gaur egun. Azken hori komunikazio aholkularitzan dabil, eta Afrikako estatuetako lehendakaritzetarako hautagaien kanpainak bideratzen ditu -hor ere da ustelkeriaz akusatua-. Canal+ konpainia da Afrikako ordainpeko telebista franko-fonoaren sektorean nagusi eta MultiChoise, berriz, telebista anglofonoan.

Ipar Euskal Herrian eta orokorkiango Frantziako Estatuan, badakigu zer bait

Munduko Bankuak eta Nazioarteko Diru Funtsak Afrikari inposaturiko pribatizazio logikak hein handi batean ase zuen Bolloréren gosea

Bollorék daukan komunikabideen jabetzaz. Ikerketa judizialaren baitan, urte hasiera honetan, sei minutu behar izan zituen David Assouline txostengileak Bollorék daukan Frantziako komunikabide guztiak zerrendatzeko. Dirutzaz gain, ideien eta hausnarketaren kontrola ere dakar inbertsio horrek. Argiki, hori du Afrikarako helburu. *Françafrique* izpiritua ez da desagertzekotan... ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
www.zinkunegioptika.com



LAPIMA Eguzkitako betaurreko bilduma berria

Gabriela Wiener

OIHU KOLEKTIBOA NORBERE BIZIPENETATIK



ESTUTZEN GAITUENARI BURUZ IDATZI BEHAR DUGU: HORTXE DATZA ZINTZOTASUN ERABATEKOA



Huaco retrato eleberriari esker ezagutu dut Gabriela Wiener kronikari eta idazlea, baina ibilbide luzea du bai kazetaritzan bai literaturan. Bere testuek "oraina eraikitzea" nahi lukeela esan dit –Cristina Rivera Garza idazlearen hitzei tiraka–. Dударik ez da lortu duela: parez pare jartzen digu ispilua, European gauzatzen dugun koloniasunari erreparatzeko eta gure harreman afektibo aurrerakoi-usteen arrakalak aztertzeko.



DANELE SARRIUGARTE  IBAI ARRIETA

Harrera beroa jaso du *Huaco retrato*-k. Bejondeizula.

Magikoa da halako zerbait gertatzea prekaritateaz eta bultzaz egiteaz nekatu zarenean. Erreparazio historikoaren markoan ikusten dut, urrearen itzulketaren markoan, Ayllu taldeak dioten bezala –arte-ikerketak eta ekintza politiko antiekolonialak lantzen ditu–. Ez da soilik nire garrasia, oihu kolektiboa baizik, eskubideen eta bizitzaren hobeen aldeko oihua. Liburu honekin, gutxienez, Madril Kolonen estatua eraisteko adina diru lortu behar dugu.

Hiru hari lotzen dira nobelan: Charles Wiener arbasoari buruzko ikerketa, protagonistaren aitaren bizitza bikoitza, eta protagonistaren beraren polimaitasun-harremana.

Hiru libururen proiektuak berreskuratzen ditut hemen. Ez neukan baliabiderik arbasoari buruzko ikerketa handia egiteko –gainera, ez nuen omendu nahi, harekin borrokatu baizik–, ezta familiako matriarka galduak bilatzeko ere, beraz alde batera utzi nuen egitasmo hori. Bestalde, aita hil zitzaidan, eta haren bizitzaz hitz egiteko gogoak piztu: bi fa-

milia zituen, ez zutenak elkarren artean harremanik izan sekula. Amarekin eta hurbilekoekin hitz egin nuen lehenik, jakina: ez zuten oso gogoko izan, baina uste nuen banueta eskubidea gaiaz hitz egiteko, eta kanpora atera nahi nuen. Azkenik, polimaitasunari buruzko eleberri-asmoa neukan: birziklatu egin dut, eta protagonistaren orainaren muina bihurtu da. Gorputzetik eta neure bizipenetik aritzeko premia izan dut beti, kasu honetan autofikzioa erabili arren. Eta pieza horiekin sortu dut *patchworka*.



Gabriela Wiener

LIMA (PERU), 1975



Kronikak, saiakerak, poema-liburuak eta eleberri bat argitaratu ditu. Hainbat hizkuntzara itzuli dira bere testuak, hala nola ingelesera, portuguesera, polonierara, alemanera, frantsesera eta italierara. Iritzi-zutabeak argitaratu izan ditu *elDiario.es* eta *El País* komunikabideetan, besteak beste. Horrez gainera, bi-deo-zutabe bat egiten du *lamula.pe* webgunean. Bere herrialdeko Kazetaritza Sari Nazionala eskuratu zuen, genero-indarkeriazko kasu baten harira egindako ikerketa-erreportajeari esker. Gaur egun Madrilén bizi da.

Hitz egin dezagun Charles Wiener delakoaz. Gizon hori, besteak beste, Machu Picchura iritsi zen ia, eta lau mila *huaco* lapurtu zituen –indigenen aurpegiak islatzen dituzten zeramikazko piezak, kolonizazio-garaiaren aurrekoak-. Haren liburuko aipu bat jarri duzu epigrafean: "Gorputzaren ergelkeria artifizia, perutarren kasuan, arimaren ergelkeria faktikoarekin lotuta zegoen".

Wienerren liburua irakurtzen hasi, eta hizkuntza arrazista horrekin topo egin nuenean, ezin izan nuen segitu: iraindu eta sumindu egin ninduen. Nola hitz egiten zuen nire kulturaz, nire hiriaz, bertako jendeaz... *Huaco retrato*-ren proiektuaren harira, ordea, berriro heldu nion: ordurako hasita nengoen Madrilgo mugimendu antiarrazistaren jardunean eta ideietan murgiltzen, gaiaz idazten nuen *elDiario.es* hedabidean, *Black Lives Matter* mugimendua gauza asko aldatzeko zorian zegoen eta, halaber, kontinentean baziren erresistentzia-borroka indigena berriak: historia berrirakurri eta bestelako kontakizunak eraikitzen ari ziren. Hortaz, argi neukan ez nuela gizona epaituko bere garaiaren talaiaitik.

Gaur egunetik baizik.

Haren ustezko hereniloba *chola* eta haserretuaren ikuspegitik epaituko nuen, nire garaiko begiekin eta amorrarekin. Gauza bat esan behar da Wienerri buruz: bere garaiko beste batzuek ez bezala, ez zituen behe-arrazak deuseztatu nahi. Besteak beste, haien parte zelako: judu austriarra zen, baztertua bera ere; frantziar herriartasuna hartu eta katoliko bihurtu zen jazarpenari ihes egiteko. Hala ere, zibilizazio-proiektu zuri europarra aldarrikatzen zuen paternalismoz, PPko edozein politikarik bezalaxe gaur egun. Are gehiago, ume indigena bat erosi eta Europara eraman zuen, hezi zezakeela frogatzeko.

Diskurtso hori oso ezaguna egiten zitzaidan, modu berean mintzatzen baitira mestizajeaz Espainian. Espainiak bere buruari kontatzen dio barbaro kanibalen eremu batera iritsi zela, eta dena eman ziela: hizkuntza, erlijioa, kultura, artea. Emakume hegoamerikar bati gerta dakiokkeen gauzarik onena espainiar batekin ez kontzea dela lasai asko esaten dute Espainiako diputatuak. Puntu horre-

tan lotu nituen iragana eta oraina. Eta liburu hau idazten hasi nintzen, kolonialtasunak gaurdaino nola zeharkatzen gaituen kontatuz.

Aitarene bi familiei buruzko istorioa nola azaltzen duzun aipagarria iruditzen zait. Egoeraren konplexutasuna erakusten duzu, inor epaitu gabe.

Liburuan ez dago herrarik, ezta biktimismorik ere; aldiz, gorputzean mina sentitu izanaren esperientziatik abiatu naiz, eta horrek enpatia eta nolabaiteko ulermena sortzen du bando guztietako pertsonetik: ustezko biktimak eta ustezko biktimagileak, zeinak ez baitira ez biktima ez biktimagile termino absolututan, beti dauzkate alderdi gehiago. Eta uste dut, azkenean, amaren figuran mamitzen dela gizatasun gordin hori, aurpegian lehertu eta bere egia osoan harritzen gaituena. Ohartzen zara emakume horrek bere patua hautatu duela; ohartzen zara gizon hori, egiaz, ez dela gizon gaizto bat, baizik eta ez dakiela maitatzen, *gaizkimaitatzen* irakatsi ziotela, inoiz ez zuela ikasi *ondomaitatzen*. Zu, aldiz, bi ibai horien gurutzetaren fruitua zara, zoritxarrez edo zorionez, eta gauzak ondo egiten saiatzen zara, eta porrot egiten duzu batzuetan. Kontraesanak besarkatzeko unea da, alde batera utziz modak, morala, egia eta gezurra.

Hori guztia, umore handiz.

Gauza negar-eragile eta dramatikoak patetismo komikoaren ikuspegitik lantzeko arau literarioari jarraitzen diot. Beste arau bat: lotsatzen nauenari buruz idaztea; hori ere barregarria da. Estutzen gaituenari buruz idatzi behar dugu, hortxe bizi baita zintzotasun erabatekoa, eta horrexek biziarazten ditu testuak.

Nueve lunas liburuaz ere galdetu nahi nizuke: zure haurdunaldiari buruzko saiakera-lekukotza da, 2009an argitaratu zenuen estreinakoz, eta bertsio zuzendua kaleratu duzu orain.

Liburuko gauza asko oso urrun sentitzen nituen, eta garbitu egin nuen; adibidez, lodifobia asko kendu nion: jasanezina iruditu zitzaidan halakoak irakurtzea, lodia naizelako batez ere. Ezin izan nituen aldatu haurren generoari eta sexuari buruzko trakeskeriak; orain



ez nuke horrela hitz egingo inolaz ere, baina garaian hala zegoen kontua.

Migratzailearen ikuspegia erakusten duzu.

Bai, perutar bat Bartzelonan erditzen. Gorputz migratzailea da argiki: kanpoan egoteko bizipenetik idazten ari nintzen jada. Halaber, kritika zuzena egin nion amatasun-esperientziaren, haurdunaldiaren eta erditzearen medikalizazioari, *sudaka* baten ikuspuntutik betiere. Nola tratatzen gaituzten erakundeetan, erietxeetan, nola hartzen gaituzten umeztat...

Haurdunaldiari buruzko liburu bat da, baina abortuaz hitz egiten du besteak beste.

Balirudike haurdunentzako liburu batean ez litzatekeela halako konturik aipatuko, ezta? Liburuak badu alderdi ilun hori. Estereotipoen aurka egiten du: haurduna ez da etxeko aingerua, pertsona hauskorra, metroan jesarlekua laga behar zaiona. Kontuz gero! Terrorista bati lagatzen diozue eserlekua, sistemen bonba-auto bati! Haurdunak ez dira babesgabeak inondik ere, sinetsidazu. Hormonalki leherkorrak, kontraesan-korrek eta edozertarako gauza dira. Eta ez nuen hitz egin erdiondoaz... Hori bai hori holokaustoa inguruko guztientzat.

Nolatan?

Qué locura enamorarme yo de ti antzez-lanean landu nuen pixka bat gaia, nahiz eta ez zen nire erdiondoa, neska-lagunarena baizik: beste tipa batekin obsesio-natu, eta etxetik joan zen, haurtxoa hartuta, bestearekin larrua jotzera. Nik ez nuen halako erdiondorik izan; neska-lagunarena sufritu nuen, ordea [barreak].

Antzezlan horretan, hain zuzen, Jaime Rodríguez Z. eta Rocío Lanchares Bardajírekin duzun harremanaz mintzo zara: bi haur hazten ari zarete hirurak elkarrekin –Coco eta Amaru–.

2016aren bueltan sekulako krisia izan genuen, eta horixe da obraren abiapuntua. Amaru txiki-txikia zela, prest geunden, polimaitasunaren mesiasa iristearekin batera, polimaitasun-familiaren ametsa bizitzeko: eraiki genuen etxetxoa, ekarrarazi genuen ohe erraldoi bat, eta goitik behe-ra aldatu genuen Cocoren bizitza –emakume bat aurkeztu genion esanez hartaz maiteminduta geundela eta gurekin bizitzera etorriko zela–. Apustu handi bat egin genuen, funtsean, eta hara non, bat-batean, haurdunaldiaren osteko lehen

zigarroa erre zuen Rocíok, edan zuen kopa bat ardo, eta erabaki zuen behia izateari utzi nahi ziola berehala; larrua jotzeko gogoa itzuli zitzaion, baina kanpoko batekin egin nahi zuen txortan, eta horrek gure ametsa eztdarazi zuen. Polimaitasunaren elastikoa jantzita proselitismoa egiten aritua nintzen ni munduan barrena, eta hara non ohartu nintzen ezin nuela egoera jasan, nik habia eraiki nahi nuela, polimaitasunaren

haurtxoa hazi. Rocik, ordea, bere momentua bizi nahi zuen. Eta bolada izugarri bat hasi zen, egundoko liskarrekin. Horixe kontatzen da obran.

“

Argi neukan ez nuela gizona epaituko –Charles Wiener– bere garaiaren talaiaatik”

Funtsean, azaldu nuen nola abiatu ginen krisi horretatik eta nola saiatu ginen gauzak bererraitkitzen. Era horretako harremanei buruzko hausnarketa da: zer akats eta zer zulo dauzkaten. Azken batean, beste modu batean maitatu nahi dugun arren, behea jotzen dugu batzuetan, gure teoriak ezin direlako praktika-ra ekarri, eta diskurtso hutsa bihurtzen direlako halakotan.

Ibilbide luzea egin duzu kazetaritzan. 2000ko hamarkadaren hasieran joan zinen Perutik: zergatik

erabaki zenuen migratzea eta nolako ibilbidea izan duzu Espainiako Estatuan?

Nire herrialdean banuen ikusgaitasun pixka bat kazetari moduan. Egunkarian zorionak ematen zizkidaten nire lanagatik, baina ez ninduten kontratatzen. Betikoa: nire lagun gizonak kontratatzen zituzten nik egiten nuen gauza bera egiteagatik, eta ni, berriz, autonomo faltu moduan nenbilen. Nekatu nintzen, eta Bartzelonara joan nintzen lehenik. Noski, munduko bekadunik zaharrena nintzen, hogeita hamar urte neuzkania, eta hutsetik hasi behar. Oso gutxi irabazten nuen kazetari moduan, beste edozer gauzarekin konbinatzen nuen; nire senarra, berriz, paellak zerbitzatzeko jarduten zen, eta horrela aritu ginen, txandaka, kazetaritzara itzuli ahal izateko, horixe baitzen gure eremua. *Etiqueta Negra* aldizkarian lana egindakoa nintzenez –kazetaritza narratiboko aldizkari enblematiko samarra Latinoamerikan– ate batzuk jotzeko modua izan nuen. Ondoren, kazetaritzarekin lotuta zegoen edozer gauzatan lan egiten hasi nintzen.



Adibidez?

Primera Línea aldizkariko horoskopoko sexuala egiten nuen: aldizkari pornoa zen, 2000ko hamarkadan DVDak oparitzen zituzten oraindik, pentsa. Diru mordo zegoen: 400 edo 600 euro ordaintzen zizkidaten Espainiako hondartzarik beroenei buruzko artikulu bat egitearen truke –nahiz eta ez naizen inoiz egon halako hondartza batean–. Aldizkariko erredaktore-burua izatera iritsi nintzen, eta *Mairie-Claire* aldizkarikoek deitu zidaten gero. Bai: aldizkari porno kutre bateko erredaktore-burua izatetik aldizkari femenino *fashion* bateko erredaktore-burua izatera.

Barrutik leherrarazi nahi zenuen?

Infiltratu bat nintzen, argi dago. Garai dibertigarria izan zen; ez zuen luze iraun. Gauza bitxi bat gertatu zen: aldizkari femeninoetan ez ziren ohartzen sekulako krisia zegoela. 2011n hartu ninduten, eta zuzendariak uste zuen Anna Wintour zela: Mercedes batean etortzen zitzaidan bila, gidari eta guzti; bien bitartean, kazetaritza desegiten ari zen gure inguruan. Ez ziren ohartzen 15M mugimenduaren Espainian zeudenik. Ni ere ozta-ozta.

Lanari uko egin nion emakume okupa antisistema batekin maitemindu nintzelako, zeinak belarrira xuxurlatzen baitzidan lana suntsitu beharra zegoela; gainera, nik idazlea izan nahi nuen, eta ez beste kaka hori. Beraz, aukera galdu nuen pisu bat –edo hainbat urtez kaka jandako *sudaka* gisa merezi nuen dena delakoa– erosteko. Eta prekaritateraz itzuli nintzen: Peraleseko baratze-ko aza-zopa jan eta zentimoak zenbatu Vaciador taberna-ko festen ostean. Nire bizitzako garairik onena izan zen.

Eta orain?

Halako batean jabetu nintzen kazetaritzaren aldaketaz: hedabide digitalekin kolaboratu behar zen, eta oso gutxi ordaintzen zuten. Apurka-apurka bidea egin nuen autore eta sinadura gisa, eta kolaborazio finko batzuk lortu nituen. Baina oso ezegonkorra da hori; duela urtebete bi zutabe galdu nituen kolpetik. Ez banu liburu hau argitaratu, eta ez balidate eskatuko bestelako saiarik, lantegiak edo hitzaldiak egiteko, ez dakit zer egin izango nukeen. Alegia, eskerrak nire liburuetatik ateratzen dudana bizibidea gero eta gehiago; bestela, kazetari moduan aritu behar banu... ●

1990ean sortua



BRINTZA
AHOLKULARITZA · CONSULTORIA

Aholkularitza zerbitzu ezberdinak eskaintzen ditugu:

- Zerga-ordainketak
- Merkataritza
- Kontabilitatea
- Legedia
- Lan esparrua

Urbieto, 15. Hernani.
943 33 12 67
Brintza.com



Denbora gelditu



DAVID BOU
DIRECTA-KO KAZETARIA

Gaur paper zuri baten aurrean nago, zer idatzi ez dakidala. Blokeoa, frustrazioa eta segurtasunik eza azaleratzen dira, artikulua hau entregatzeko epemuga hurbildu ahala. Ez da gertatzen zaidan lehen aldia, baina oraingo honetan ez daukat kontatua izatea merezi duen gaurkotasuneko gairik. Gizarte indibidualista eta azkar honetan denetarik jakin behar duzu, gai izan behar duzu edozein gairi buruzko iritziak izateko, eta jendeak balioztatzeak adinako konbentzimenduarekin eskaini behar dituzu, pertsona horiek zure planteamenduekin ados egon ala ez. Horretan bihurtu gaitu “iraultza digitalak”, gogoeta egiteko ia parentesirik ez duten izaki, eta are garrantzitsuagoa dena, zailantzarako tarterik gabeak. Antsieta kudeatzera eta gure bertsio onena eskaintzera behartuak, sare sozialen fikziozko munduan.

Bitartean, konpartimentu txikietan gordetzen ditugu egunero zeharkatzen gaituzten emozio guztiak, gure izatearen leku ezkutu batean, askotan ez baitago merezi duten garrantzia emateko lekurik, denborarik, espaziorik. Bizi-erritmoak estutu egiten gaitu, eta ez digu uzten gertatzen zaiguna birplanteatzen, bizipenak digeritzen eta haie-tatik irakaspenak ateratzen.

Pandemia batetik ateratzen ari gara, beste gerra bat heldu da, eta noiz hasi

Bizi-erritmoak
estutu egiten gaitu,
eta ez digu uzten
gertatzen zaiguna
birplanteatzen,
bizipenak digeritzen
eta haie-tatik
irakaspenak ateratzen

zen gogoratzerik ere ez dugun krisia sakonagoa egiten da. Berlingo Harresia erori ondoren jaio garen belaunaldia kolapsoaren ideiak mehatxatuta hazi gara. Pribatizazioa, prekarietatea, langabezia, etxegabetzeak hitz garrantzitsuak dira gure eguneroko hiztegiaren.

Horrek guztiak muturreko egoerara eramane gaitu, osasun mentalaren hondamendira. Espainiako Droga Menpekotasunaren aurkako Laguntza Fundazioaren arabera, estatuko 15 eta 29 urte bitarteko bi milioi gaztek (%30) buruko arazoak izan dituzte azken urtean. Osasun Sistema Nazionalaren

Osasun Mentaleko Estrategiak dio tratamendua behar duten pertsonen erdiek baino gehiagok ez dutela jasotzen, eta ehuneko esanguratsu batek ez duela egokia jasotzen.

Datu horiek lotura zuzena dute gure bizitzak itotzen dituen produktibismoarekin: osasun mentaleko arazoak %11 eta 27 artean lan-baldintzei egotz dakizkieke, UGTren txosten baten arabera. Aldi berean, osasun mentaleko arazoak dituzten hamar pertsonatik zortzik ez dute lanik, Estatistikako Institutu Nazionalaren zifrek erakusten dutenez.

Duela egun batzuk, nire erreferente handienetako bat agurtu nuen, gehien maite izan dudana pertsonetako bat: nire aitona, I'avi. 101 urte bete zituen, hainbat faktorerengatik, baina ziur nago badirela bi zerikusi handia izan zutenak: gutxi hitz egiten zuen eta asko entzuten zuen; eta inoiz ez zituen, inoiz, gauzak azkar egiten. Beti hartzen zuen behar adina denbora prozesuak lasaitasunez ireki eta ixteko.

Bada esaldi bat Marrakexeko bazarreko postuetan lan egiten dutenek turistei errepikatzen dietena, prezioak eztabaidatzeko astirik hartu gabe aritzen direnean erosketan dendaz denda: «Presak hil egiten du, lagun». Ez deza-gun inoiz bistatik galdu, eman diezaigun denbora denborari. ●

Oraindik ere



UXUE APAOLAZA LARREA



PAULA ESTÉVEZ

Tira, ea lehenbailehen bukatzen duen; ez dakit zerbait egin behar nukeen kontua azkartzeko. Barrabilak, uzkia, titiburuak...? Zer gustatuko zaio honi?”. Puntu horretan, ligatzeak eskatzen duen espektatiba inbertsio osoa agortuta dago, eta erreklamazio gutun bat bidaltzeko aukeraz pentsatzen ari zara. Amaitzen duenean, sexu-harreman oso bat izan duzu, eta haserre zaude (edo aspertuta). Osoa. Alegia, sartu egin dizula.

Sarketa da beti garrantzitsua, baita epailearen aurrean ere. Bortxatzen bazaituzte ere (eta bizirik ateratzeko bezain lotsagabea izan bazara), sarketek neurtuko dute delituaren larritasuna. Berriki, Laura Freixasen erantzun transfoboetako batean ere horixe irakurri zenuen: baietz, transexualak ere bortxa ditzaketela, baina ez direla, ondorioz, haurdun geldituko. Beraz, zakilkatu egin behar zaituzte (eta ernaltzeko ahalmena eduki). Eta abortua libre eta eroso den herri honetan (ez?), haurdun gera zaitezkeen edo ez izango da larritasunaren atalasea (edo atalaseetako bat).

Baina itzul gaitezen plazer ukatuetara. Delitua delituago egiten duen hori bera baita gozamenaren puntu goren-tzat jotzen dena. Serio entzun duzu arazoa bagina orgasmoeragileak ez ditu-

zuenok zenutela. Beraz, bagina omen zen zure orgasmoen iturria. Iraganeko aditz denbora erabiltzea optimismo ergel bat da kasu honetan. Izan ere, bere osoa hasi denean (sexu harreman osoa), amaitzen da zure partziala, oso maiz, gaur egun ere. Zuri emango zaizun guztiari “aurretikoak” edo horrelako zerbait esaten diote. Batzuetan konprobatu ere egiten dute behatzaz ea nahikoa lubrifikatuta zauden, edo lan pixka bat gehiago egin behar duten. Hortik aurrera, ekin sexu-harremana osatzeari, osotasunera irits dadin.

Primeran ikasi zenuen preserbatiboak jartzen, punta hatzez zanpatuta ainerik ez geratzeko eta bere sexu-harreman osoa zure haurdunaldi edo auskalo zer gaixotasun izan ez dadin. Eta inoiz ezingo duzu pasioaren besoe-tan itsu murgildu, noski, zuk gogoratu beharko duzulako gomatxoa jartzeaz. Eta sartu gabe ez da geldituko, beraz, adi ibili, denbora guztian, ez baitakizu bat-batean eta aurreabisu nabarmenik gabe gertatuko den. Jarri ondoren ere, erne: sarketa onartu duzunez, preserbatiboa kentzea ere bai, dirudienez. Hori ez omen da bortxaketa bat. Zer inportakoa zaio horri zure orgasmoa?

Kontuz, baita ere, umea erditu ondorengo sexu-harremanekin, esan dizu

ginekologoak. “Osoekin?”, ez dizute, noski, ironia ulertuko. “Kontuz, esan nahi duzu, sarketekin?”. Eta idiota zuk eman-go duzu. Birjinitatea noiz galdu duzun galdetu dizuten bakoitzean bezala. “Benetan ez duzu ulertzen zer galdetzen ari garen?”. Eta ulertzen duzu, noski: ulertzen duzu “birjinitate”, eta ulertzen duzu “galdu” hori. Eta horregatik beragatik ez duzu ulertzen. “Kontzienteki, zazpi bat urte nituela, burukoarekin”, “Hemezortzi bat hilabete nituela, nire buruarekin, pelutxezko hartatzeko bat begira nuela”... Baina noiz sartu zizuten jakin nahi dute.

Eta partikularitasunak partikularitasun, gibela oin-azpian dagoela sine-tsi edo ez, anatomia jaramon eginez gero, oina ez, eta bagina ere ez: klitoria, *señores*, klitoria (ez zinen zu oker zeundena). Bestela antzeztu egingo dugu, egin dugu, egiten dugu (ez beti parekoa animatzeko, hurrengo eginkizunekin lehenbailehen hasteko baizik), eta espektatibak lurperatu. Berrogeiak pasata dituzu, ez zenukeen pentsatuko askoz urte gutxiago eta pazientzia handiagoa zenituen garaian, adin honetan zenbait gauza azaldu beharko zenituenik. Heterosexualitatea oso gaizki dago, ordea: aspaldi ikasi zenuen eskuzabaltasuna eta sumisia bereizten, eta orain, asper-tu egiten zara. ●

Zarata arrakala



**ANE LABAKA
MAYOZ**
BERTSOLARIA

Pribilegiatuak horren barneratuta izan ohi ditu bere pribilegioak ezen gehienetan ez baita izan badituenik ere ohartzen. Pribilegiatuak opor idealei buruz hitz egin lezake kideekin, behar eta nahi beste elika litzake bere fantasia guztiak, baldin eta uneraren batean biriketan arnasa falta zaiola sentitzen badu.

Eguzki bila abiatzen gara batzuk, kresalaren igurtzi bila; mendi aldeko aire garbienaren bila, bestela. Paren-tesiengatik ordaintzen dugu. Mugituko eta mugiaraziko gaituzten esperien-tziengatik, batzuetan; bizipen, kolore-gama, paisaia, usain, zapore... berriak geuretzegatik, eta pilatzeagatik. Besteetan, berriz, bakea lehenesten dugu beste guztiaren gainetik. Geure baitara bil-bil eginda egoteko moduko txoko bat nahi izaten dugu; oihalezko hamaka bat zintzilik zuhaitzetik zuhaitzera, txorien kantua, eta liburu on batzuk. Lasaitasunagatik ordaintzen dugu horrelakoetan; isiltasunagatik.

Oraintsu arte ez naiz sekula azken bi horiek elkarlotzera iritsi. Ez dut kontzienteki pentsatu izan isiltasunaz, eta ordaintzeaz; isiltasuna ordaintzeaz, isiltasunagatik ordaintzeaz. Lagun batek egindako hausnarketak akuilatu ninduen duela gutxi eta, beste ezer baino

lehen, telebista-iragarki bat etorri zitzaidan gogora. Zaratarik ateratzen ez zuen garbigailu bati buruzkoa zen iragarkia, badira urte batzuk ikusi nuela.

Hain zuzen ere, munduko zatitxo batean ordaindu egiten da garbigailu, xurgagailu, irabiagailu eta gainerako-gailu guztiek ahalik eta soinu gutxien izan dezaten. Munduko zatitxo batean, jendeak haserre bizian egiten du izarapetik leihora artekoa, jaiegunez eta goizean goiz etxe pareko lurra zulatzen hasi diren langileekiko edo bazkalosteko siesta-ordu sakratuan kanpoan lanean dabiltzan kale-garbitzaileekiko klase-elkartasunez.

Munduko zatitxo horretatik kanpo, ordea, kutsadura akustikoa hertsiki lotuta dago antsietatearekin, estresarekin, loezinarekin... eta, oro har, ongizate faltarekin. Kanpoko zaratak zarata sortzen du barruan ere eta, behin zarata barren-duz gero, akabo isiltasuna.

[Gera zaitetz isilik tarte batez. Zer entzuten duzu?]

Pribilegiatuak horren barneratuta izan ohi ditu bere pribilegioak ezen gehienetan ez baita izan badituenik ere ohartzen. Pribilegiatuok horren barneratuta izan ohi ditugu gure pribilegioak ezen gehienetan ez baikara izan baditugunik ere ohartzen. ●

Froga



**LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI**
IRAKASLEA

Gernika bonbardatu zutenak ez ziren txarrak, ezta bonbardatuak hain onak ere" bota zuen lasai asko telebistan audientzia handiko saioan iritzi-emaile batek. Tertuliako inork tutik ere ez zion esan.

"Torturatu egin ninduten: etxean lotan nengoen, eta gauaren erdian agente talde bat indarrez sartu zen abisatu gabe; aurpegia estalita zeramaten, ohetik altxatu eta hormaren kontra jartzera behartu ninduten. Beldurra pasatu nuen, ez zidaten utzi ukitzen ondasun pertsonalik, oso armatuta zeuden. Izua izan nuen, gainean egin nuen txiza..." jaurti zuen burlaizez Espainiako Kon-

gresuan diputatu izan aurretik Estatu-ko abokatua zenak.

Felipa Artano Joxi Zabalaren amak gastu judizialak (9.256,02 euro) ordaindu beharko ditu, semea terrorismoaren biktimatzat onar zezaten jarri zuen helegitea atzera bota ziotelako.

2022ko apiril eta maiatz artean gertatu dira hirurak, normaltasun osoz. Politikariak espiatu dituztela ere zabaldu da. Ia inor ez da asaldatu. Bitartean, harrituta ultraeskuina goraka doalako.

Aitatutakoak tolerantziaz hartzea da eskuin muturra gizarte-kontzientzian onartuta dagoelako froga. ●

Energia krisia



KIMETZ ARANA BUTROE
BARATZEZAINA

Ukraina eta Errusiaren arteko gerraren aitzakiapean izugarri azkartu da azken urteetako energia eta erregaiei garestitzea. Garraiolarien protestek supermerkatuak husteko beldurak haizatu ditu jendearengan. Horrela munduko beste tokietan gertatzen denak gure egunerokoa nola baldintza dezakeen ikusi da, agerian utziz deslokalizazioan eta eten-gabeko mozkinen garraioan oinarritzen den sistemaren ahultasuna.

Horren aurrean estatuetako gobernuak erregaiekiko zergak murriztu eta bonu sozialak ugaritu dituzte. Agintariek ez dute ordea erregaiei gainera prezioetan zein enpresa handien joko arauetan eragiteko ahalik erakutsi, ezta erregai fosilak ordezkatzeko sakoneko proposamenik aurkeztu ere.

Natur baliabideen agortzeak globalizazio aroaren amaiera dakar. Orain arteko ekonomiaren etengabeko hazi beharrak planetaren mugekin egin du topo. Badirudi hemendik aurrera bere beharrak gertutasunean asetzeko gai diren herriak izango direla etorkizuneko

Estatu-
gabekoentzat maila
lokala da eraldaketa
eta erronka berriei
aurre egiteko
esparrurik praktiko
eta gauzagarriena

zailtasunei aurre egiteko prestatuenak.

Euskal Herrian sindikatuak langile-riaren ahalmen ekonomikoaren apaltzea salatzen ari dira etengabe. Enpresari Zedarrak foroak berriz EAEko ekonomiaren ahultzeaz ohartarazi du berriki. Guztientzat erronka berriak, aldaketen beharrean gaude.

Indiako nekazariek bertako gobernuak gauzatu nahi zituen neurri liberalizatzaileak geldiaraztea lortu zuten iaz, milaka langilek urtebetez mantendutako bide eta hiri nagusien blokeo gogorraren ondorioz.

Kurduak berriz 2005ean proposatu zuten Konfederalismo Demokratikoa estatutik gabeko pertsonentzako sistema gisa. Haien biziraupena bermatzeko, burujabetzan oinarrituz, udalerrietatik garatzen ari dira elikaduran, ekonomian, ingurugiroan eta feminismoan bidea egiten duen egitasmoa.

Politika handiak botere ekonomikoarekiko duen menpekotasuna ikusita, estatutik gabekoentzat maila lokal da eraldaketa eta erronka berriei aurre egiteko esparrurik praktiko eta gauzagarriena. Urrunera joan gabe Iparraldean Bizi! elkarteak bultzatuta metamorfosi ekologikorako ituna garatzen ari dira zenbait udalerritan. Agian ildo horretan gehiago sakonduko bagenu lortuko genuke datozen hamarkadetan gure herriaren burujabetzarako indarra eta energia. ●

ARGIA

**Kazetaritza independentea
izan dadin, jendearen
babesa beharrezkoa da.**

argia.eus/eginargiakoa

komunitatea@argia.eus | (+34) 943 37 15 45



TXORI URDINAK

Espetxearen erretratu bat
Santi Cobos presoaren ahotik

Liburua eskuratzeko:
azoka.argia.eus
943 37 15 45

Txori urdinak liburuaren aurkezpena eta solasaldia

**Espetxe sistema eta zigorraren kultura:
kritikak... eta alternatibak?**

Maiatzak 20 · 19:00 · Ortzaize, Menta liburudenda

Zigor Olabarria egilea eta **Filipe Bidarte** euskal preso politiko ohiarekin

Maiatzak 26 · 19:00 · Baiona, Epaiska Elkartea

Zigor Olabarria egilea eta **Lorentxa Beyre** euskal preso politiko ohiarekin



PABLO GONZALEZ

Ekaitz perfektuak harrapatuta

Pablo Gonzalez kazetaria Polonian atxilotuta daukate duela ia hiru hilabetetik. Maiatzaren 29an amaitzen zaio behin-behineko espetxealdia Errusiako espioi izatea egotzita, eta erreportaje hau ixtean, epaiketarako data zehatzik ez dute jakinarazi oraindik. Hamar urteko espetxe zigorra du jokoan. Bitartean, Poloniak, Europar Batasuneko kide gisa derrigor errespetatu behar lituzkeen eskubide ugari urratu dizkio, besteren artean, familiarekin edo konfiantzazko abokatu batekin harremanetan jartzekoa. Pablo edo *Pavel* –bere herrian ezagutzen duten bezala– nor den eta zer gertatu zaion berreraikiko dugu erreportaje honetan.



Pablo Gonzalez, Nagorno
Karabakh-eko gerran bere
etxea defendatzen geratu
zen emakume batekin.

ARGAZKIA: FAMILIAK UTZIA

Ni ez naiz guda kazetaria, guda asko kubritu edo kubrituko ditudan arren. Zonalde jakin bateko berriemailea naiz. Eredu horretan guda badago, guda jorratuko dut, baina hor ez badago gudarik, ez naiz beste guda batera joango, hegazkin, drone, tanke eta abarri buruz asko jakinagatik. Zergatik? Ez dudalako ekarpenik egiten. Ez baduzu hango hizkuntza hitz egiten, ez baduzu historia ezagutzen... zertarako guda batera joan? Guda dagoelako bakarrik? Adrenalina *subidoia* daukazulako? Nik ez dut hori defendatzen”.

Pablo González Yagüe mintzo da, gaur egun Polonian atxilo daukaten kazetaria. Iazko irailean publikatu zuten *Vivir la guerra* dokumental laburrean egin ziotuen adierazpenok, pertsona honek nola pentsatzen duen ezagutzeko lan bikaina da. Bere aitona 1936ko gudan Euskal Herriatik Sobietar Batasunera ihesean bidalitako milaka haurretako bat izan zen. Bere ama han jaio zen, eta Pablo ere bai, Moskun, duela 40 urte. Gaur egun Bizkaiko Nabarnizen bizi da, ezkontuta dago eta hiru seme ditu. Hitz egiten ditu errusiera, poloniera, gaztelania, ingelesa eta katalana, eta euskara ulertu egiten du. Filologia eslaviarra ikasi zuen Bartzelonako Unibertsitatean eta 2010ean *El Correo*ren multimedia masterra egin ostean hasi zen kazetaritzaren munduan murgiltzen. Gaur egun politologiako doktore tesia prestatzen ari da EHUen.



Ukrainako gerrak 13.000 hildako eragin ditu zortzi urtean eta sei aldiz izan gara elkarrekin han”

Juan Teixeira kazetaria

“Erabaki dut nire espezializazioa izatea Europa Erdialdea, Europa Ekialdea, Balkanak, espazio post-sovietarra eta Kaukasia. Nik eremu hori kubritzen dut, gehiago ez. Nire lan nagusia da ulertzea eta azaltzea. Zerbait azaldu behar, baina ulertzen ez baduzu, gaizki ari baikara. Ondorengo nire iritzia da, baina uste dut ofizioan zabaldua dagoela, batez

ere eskola zaharrekoen artean: jendea formatzearen eta gauzak azaltzearen arteko ariketa da kazetaritza. Zuk ezin dituzu gauza batzuk azaldu, aurretik ez baduzu jendea formatu oinarritzko informazioarekin. Ez baduzu azaltzen nor diren A eta zergatik daramaten X denbora leku horretan, ezin duzu azaldu zergatik altxatu diren B-ren aurka, zein den beren harremana B-rekin, zergatik dagoen C, zergatik dagoen D begira... Analisi hori egiteko, lehenik eta behin, zuk jakin behar duzu”, zioen aipatu ikusentzunezkoan.

UKRAINAKO GUDAN ARGI BILA

“Kemen abenturazaleak eta nazioarteko kazetaritzan karrera egin nahiak batu gintuen –Gonzalezen errugabetasunaren alde lekukotza indartsua idatzi du bere kide Juan Teixeira kazetariak *Eulixe* webgunean, *Sobre Pablo González y la menguante libertad de prensa* du izena artikulua (Pablo Gonzalezi eta murrizten doan prentsa-askatasunari buruz)–. Azken hamarkadan leku ugari izan gara, beti Europa Ekialdean. Gainera, handik gutxira, estatu kolpea jazo zen Ukrainan, 2014 urtean. Askorentzat berria izan arren, zortzi urtean 13.000 hildako eragin ditu gatazka triste horrek eta herrialde hura sei aldiz bisitatu dugu elkarrekin”.

Ondorengo herrialdeetan ibili da *freelance* gisa kazetari lanak egiten, batez ere *Gara*, *Público* eta La Sextarako: Ukraina, Georgia, Armenia, Azerbaijan, Nagorno Karabakh, Bielorrusia, Polonia, Iran, Siria, Israel, Palestina, Lituania, Letonia, Estonia, Kosovo... beti bere kabuz eta bere kriterioen arabera informatzen.

2016ko abuztuan, DCLeaks.com webguneak filtratu egin zituen George Soros handikiak mundu osoan bultzatutako fundazioen 2.576 barne-dokumentu. Filtratutako txostenetako batean Twitterren “Errusiaren aldeko iritzi-sortzailen zerrenda” bat zegoen. Hor agertu zen Pablo González lehen aldiz “errusiarzale” gisa definituta. Bere lagunek uste dute zerrenda horretan sartu zutela ez ziolako kontakizun ofizialari men egiten, eta libreki, bateko eta besteko kontaktuak baliatuz, bestelako kontakizun bat egiten zuelako Donbasseko gerraz.

2022ra etorrita, gogora dezagun urtea hasi genuela NATOren eta Errusiaren arteko talka geroz eta handiago batekin, hasieran dialektikoa, Ukraina epizentro gisa hartuta. AEBek hilabeteak zeramatzen esanez errusiarren inba-

sioa berehalakoa izango zela. Gauzak horrela, urtarrila amaieran Gonzalezek eta Teixeirak erabaki zuten berriro ere hara joatea, lehen eskutik ikustera ea zenbateraino zen egia esaten ari zirena.

Egun horietan, Gonzalezek publikoki adierazi zuen Errusiaren balizko inbasioaren aurkako bere posizioa, urtarrilaren 22an idatzitako txio honekin: “Busti egingo naiz: gerrarik ez. Aurkakoa esaten duena, gutxien-gutxienez, jendea hiltzera animatzen ari da. Era guztietako justifikazioak, barkatu esatea, txorakeriak dira. Errusia Ukrainan gehiago sartzeari, ez. NATO Ukrainan gehiago sartzeari, ez. Gerrarik ez!”.

Nahiz eta guda-hotsak entzun, logikak eta geopolitikan adituek zioten Errusiak ez zuela Ukraina inbadituko. Putinentzat mugimendu suizida zatekeela, Europarentzat arrisku handia eta halako egoera bat interesatzen zitzaizen bakarrik AEBak lirakekeela. Horixe bera pentsatzen zuten han elkarriketatu ziotuen era guztietako jendeek, eta horixe adierazi zuten publikoki zuzeneko konexio ugarietan La Sexta telebistan. Oker zeuden, ordea.

USTEKABEEN HASIERA

Espainiako La Sexta telebista katerako egin behar zuen konexio batean hasi zen dena okertzen. Honela kontatzen du Teixeira: “Ukraina ekialdean geunden, Avdeevka izeneko herri batean, frontetik kilometro gutxira. Militar ukrainarren baimenarekin, herriaren erdialdera joan ginen, borroka frontetik hain gertu bizi ziren herritarren bizitza nolakoa zen kontatzera. Amaitutakoan, Pablok erabaki zuen zuzeneko bat egitea atzean militarrek zituela, beti geratzen baita ikusgarriago telebistan. La Sextatik 45 minutuz eduki gintuzten han zain, elurpean. Geroz eta urduriago zeuden militarrek galdetzen zuten ea zer arraio egiten zuen burusoil horrek hor zutik, tripode baten gainean mugikorra jarrita”. Azkenean, militarrek gogaitu, material guztia eza-barazi, Gonzalezen pasaporteari argazkia atera eta handik bota zituzten.

Gau hartan bertan, Ukrainako zerbitzu sekretuen deia jaso zuen, esanez beren bulego nagusira joateko al bait azkarren. “Nahiz eta lana genuen egiteko, Kievera itzuli ginen. Han Pablo galdekatu zuten lau orduz, errusiarren agentea izatea egotzita ondorengo froga indartsuekin: *Gararako* idaztea eta Laboral Kutxako kreditu txartela izatea, beren arabera, Errusiak finantzatua. Hain zen

zoroa dena, Pablok ez zuela oso serio hartu. Uste zuen *torlojuak estutzen* ari zitzaizkiola, bere lan periodistikoetan hitzak neurtu zitzaizkion. Errusieraz ondo jakiteak eta inguruaz zuen ezagutzak ere harritu zituen zerbitzu sekretuak, Gonzalezek gero kontatu zuenez. Azkenean, hiru eguneko epean Ukrainatik alde egitera “gonbidatu” zuten, kanporatze agindu formalik gabe.

Berehala jakin zuen ordea, une horietan, Espainiako zerbitzu sekretuak Euskal Herriko bere familiako etxean, bere amarenean eta gaztaroko lagun baten Kataluniako etxebizitzan izan zirela galderake giten eta esaten Gonzalezek Errusiaren soldatapeko agentea zela. Berehala jarraipena amaitzea eta herrialdea uztea erabaki zuten, beren segurtasunagatik.

GONZALEZ, HARRITUTA

“Kontu berarekin agertu ziren denen etxeetan. Esaten zieten Errusiako zerbitzu sekretuetako edo inteligentzia militarreko edo horrelako zerbaiteko agentea naizela, ea inork susmorik ba ote zuen, ea bazekiten zerbaitekin, beraiek jakin bazekitela. Denek erantzun zieten ez zekitela zertaz ari ziren, ea zer uste zuten. Nire jatorria errusiarra dela?

Baietz. Denok egon gara eta han (...). Ez da inolako sekreturik. (...) Ea diru asko kudeatzen dudana? Ba justukoa, nire kontu korrontea begira dezakete. Nire zaharraren laguntza jasotzen dudala noiz edo noiz? Ba bai. Bi pisu ditu Moskun alokairuan eta nire parteia ematen dit. Baina oso diru kantitate txikiak dira. Duela 15 urteko auto bat daukat eta xahutzen dudana diru bakarra lane-rako tresnak erosteko izaten da. Guztia pitokeria iruditzen zait”.

Harrituta eta haserre zegoen. Etxera itzuli zenean goiko mezu hori bidali zion audio gisa lagun bati, gerora *Público* egunkariak argitaratu duena.

Nabarnizko etxean egon zen, eta aste horietan ez zen inor berarekin berriro harremanetan jarri. Bitartean, gainera, albiste bonba gertatu zen: otsailaren 24an Errusiak Ukrainako inbasioa hasi zuen, mundu mailako albiste bilakatuz horrenbeste ezagutzen zuen herrialdea. “Nahiz eta Pablok jakin ez zela segurua, erabaki zuen Poloniara bidaiatzea. Pentsatu zuen ikertua izan otean konturatuko zirela ez zuela ezkutatzeko ezer”, dio Teixeira. “Gonzalezek bazituen zantzuak zerbaitekin potoloa egosten ari zela jakiteko, bazekien zerbitzu sekre-

tu ukrainar eta espainiarrek berekiko deskonfiantza zutela. Eta hala ere, lane-ra joan zen, nolabaiteko koktel batean nahasiz bere axolagabetasuna, beharra, errugabetasun sentimendua eta lan profesional onean fedea”. Oraingoan Poloniara joan zen, gudak eragindako exodoaz informazio foku bat zen.

Izango al du irakurleak gogoan Errusiaren eraso hasi zenean, beste albiste askoren artean, zabaldu zela Poloniak ez zela bere herrialdean sartzen uzten zuriak ez ziren iheslariei? Paradoxak zer diren, bere kazetari lanarekin Gonzalezek aurpegia atera zion gau hartan atxilotu eta bere eskubideak nabarmen urratuko zituen estatuari. Otsailaren 27ko txio honetan, adibidez, zera zioen hiru argazki atxikita.

“Zenbait informaziok diote Poloniak ez diela uzten pasatzen Ukrainatik doazen eta zuriak ez diren herritarrei. Hori EZ da egia. Muga zabalik dago edonorentzat! Argazkietan ikus daitezke nigeriarrak, Afrikako ikasleak eta Bangladesheko herritarrek. Denek utzi dute Ukraina atzean”.

Gau hartan, goizeko ordu txikietan atxilotu zuen herrialde hartako inteligentzia zerbitzuen elitezko taldeak,





eta horrenbestez, ekaitzak bete-betean harrapatu zuen.

OINARRIZKO ESKUBIDEEN URRAKETA UGARI

Otsailak 28. Goizeko 7:00ak. Oihana Goirienaren telefonoak jo du eta besaldean senarraren ahotsak dio atxiloturik daukatela Rzeszów hirian, zerbitzu sekretuen egoitzan. Soilik hori, ongi dagoela eta lau ordu daramatzala atxilo. Ordutik ia hiru hilabetetan ezin izan dute berriro elkarrekin hitz egin, eta Gonzalezek ezin izan du bere burua defendatu iritzi publikoaren aurrean. Erabat inkomunikatuta daukate, soilik Espainiako kontsulak eta han ezagun batzuek proposatu dioten abokatuak hitz egin dute berarekin. Kontsulak esan duenez, Gonzalezek argi eta garbi esaten du errugabea dela.

“Mamuak ikusi nahi dituzte ez dau den lekuan –zioen Gonzalezek lagunari bidali zion audio mezuan–. Izartxoak eta plusak irabazi nahiko dituzte esanez zer bait garrantzitsua desartikulatututela. Esan diezadatela orduan zer sekreturen bila joan naizen, non sartu naizen. Behintzat adibide bat. Eta gainera, kontrakoa da: beti ibili naiz urrun horrelako gauzetatik, paso egiten dut, ez dut behar, nire materialak saltzen

dira. Jende askorekin biltzen naizela? Politikariak, politologoak... joder, hori da kazetaritza. Zentzu horretan ez dakit zer asmatuko duten, erridikulua da”.

Publiko egin den informazio ofizial bakarra Poloniako gobernuaren ohar bat da, atxilotu eta egun gutxira, non esaten duten Poloniako Zigor Kodearen 130 artikulua aplikatu diotela eta hamar urte arteko espetxe zigorra eror dakiokela, baina oraingoz, behin-behineko atxiloaldia finkatu diotela.

NORTASUNAREKIN GAIZKI-ULERTUA?

Poloniatik familiari heldutako gutun ofizialean, kazetaria aipatzeko, Pavel Rubtsov eta Aleksei Rubtsov izenak erabili zituzten. Senideek prentsari argitu diotenez, Gonzalezek errusiar pasaportearen duen deitura eta bere aita dira, hurrenez hurren. Izan ere, bere gurasoak banatzean hartu zuen Pablo Gonzalez deitura –Pavel errusiar izenaren itzulpena eta amaren abizena–, baina haiek ez zituen aldatu errusiar dokumentazioan.

Teixeirak bere artikuluan salatzen duenez, lehen egunotako minaren erdian, zenbait hedabidek, hala nola *El Correok* eta *La Voz de Galicia*, gezurra publikatu zuten, esanez Gonzalez “pasaporte faltsuekin” harrapatu zutela. Afera

hau azaltzeko, Boye abokatuak dio dokumentazio guztia aurkeztu eta zinpeko itzulpenarekin helarazi dutela, guztia Getxoko udalak emana.

“

Jende askorekin biltzen naizela? Politikariak, politologoak... joder, hori da kazetaritza”

Pablo Gonzalez

Kazetariaren senideek eta lagunek salatu dute aurrekaririk gabeko kasua dela Europar Batasunean eta Poloniak bere aurka dituela dioten frogak “erabat zirkunstantzialak” direla, denak bere jatorri errusiarrarekin lotuta. Espainiako Gobernuaren jarrera ere kritikatu dute, “Poloniari ahalbidetuz Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Karta ez betetzea, 18 artikulua urratuz, nahiz eta dokumentu hori loteslea izan EB-ko herrialdeentzat”.



KAZETARI DESEROSOA

“Orain denak gaude Ukrainakoarekin topera, jendea lur azpian errefuxiatuta eta gatazkak eragindako arazoak. Duela urte eta erdi Karabakh-eko gatazka lehertu zen eta gehiengoak ez zion kasu zipitzik egin. Eskala txikiagokoa izan zen, baina beldurgarria hala ere. Askoz biolentagoa izan zen, begiramen gutxiagorekin alde guztien partetik. Ni han izan nintzen jarraipena egiten, hau jarraitzen ari naizen bezala eta agian etorkizunean beste batzuk jarraituko ditudan bezala. Eta egiatan, moral bikoitz honek izorratzen nau, barkatu biraoa”. Hau *Vivir la guerra* dokumentalean zioen iaz, hurrengo adierazpena bezala.

“Zu han [gudan] bisitan zaude. Hori ez da zurea. Hara iritsi zara, ikusi eta bazoaz. Mezuak bidaliko dizkiezu beste leku batean daukazun lagun, senide eta abarri, futbol edo saskibaloiko zure taldeak edo zure musika talde gustukoena zer egin duen eta abar informatuko zara. Bizitzak aurrera darrai. Kontziente zara hura ez dela zure errealitatea eta zu ez zaudela hor, nolabait esateko, borroka egiteko. Egun asko entzuten da kazetari-tza aktibista eta abar. Ahalik eta ongien eramaten saiatuko zara. Gauzak perspektibarekin ikustea da gakoa. Gudan gauzak handietsi egiten dira, eta saiatu

Free Pablo Gonzalez kanpaina



Kazetaritzaren sektorean egonezina eragin du Gonzalezen atxiloketak, eta ehunka euskal kazetarik –ARGIA osoak edo *Berriak*, besteren artean–, Espainiako Estatuko kazetari askok, Europako Kazetarien Federazioak edo Mugarik Gabeko Kazetariak eskatu dute argitu dezatela gertatutakoa eta berehala utz dezatela aske. Amnistia Internazionalak ere exigitu du bere familiarekin harremanetan jartzeko eskubidea errespetatzeko eta bermatu dezatela epaiketa justua izango duela.

behar da gauzak bere momentuko balorearen arabera hartzen. Adibidez, zerutik hegan etorri den burni puska batek etxe hori suntsitu eta pertsona bat hil du. Horri buruz informatuko duzu, gertatu dena azaldu eta aurrera jarraituko duzu. Ezin zaio garrantzi gehiago edo gutxiago eman. Eta gero ikusiko duzu munduak aurrera jarraitzen duela, munduari ez zaiola axola zer gertatu den, eta ezagutu duzun jende hori guztia, edo hil dena edo borrokan jarraitzen duena, munduari ez zaiola pitorik axola. Aurre egin behar diozu horri eta saiatu munduarekin ez gehiegi haserretzen, ez baita munduaren errua bizitzak aurrera jarraitzea”.

Ondorengoa idatzi zuen sare sozialetan atxilotu baino egun batzuk lehenago. “Preso eta hildakoen argazki piloa dago gatazka honetan. Ez dut bat bera ere argitaratuko; ez alde batekoa, ez bestekoa. Pertsonak dira, batzuek hala ziren, eta familiak dauzkate. Biktima ere badira. Garrantzi edo interes informatibo handikoa izan ezean, ez argitaratzen saiatuko naiz”.

“Pablo dudarik gabe lekuko deserosoa zen Ukrainan –dio Teixeira kideak–, inongo filtrorik gabe informatzea erabakia zuelako, ezagutza handiarekin, zintzotasunez eta etikatik. Horrek abiarazi du amesgaizto hau”. Ea behingoz amaitzen den.

OIHANA GOIRIENA

“Pablok ez dauka ezkutatzeko ezer”

Hala moduz daudela dio, egunen arabera, batzuetan hobeto, besteetan okerrago. Hala ere, indarra transmititzen du Oihana Goirienak (Gernika, 1975), Poloniako Radom-go espetxean preso duten *Pavelen* emazteak. Senide eta lagunek hala deitzen baitiote, eta zelan diren kontuak, atxiloketaren albistea za-

baldu zenean, oroitzen du Nabarnizen inor gutxi kargutu zela, han ez baitzuen inork Pablo Gonzalez gisa ezagutzen. Gerora bai, herrian elkarretaratzera deitu zuten azkar, baita jendetza batu ere. ARGIAko harpidedun honekin mintzatu gara, eta argi adierazi digu amesgaizto hau berehala amaitzea nahi duela.

 LANDER ARBELAITZ MITXELENA  DANI BLANCO



DANI BLANCO

Zer da dakigun azken informazioa [maiatzak 5]?

Asteazkenean [apirilak 27] bista eduki zuen Pablok, fiskalaren aurrera joan zen deklaratzera, eta hurrengo egunean, bere urtebetetze egunean, abokatua-rekin hitz egin nuen. Berak esan zidan ongi ikusi zuela, ezin du bista zer moduz joan zen esan. Orain Pablok abokatuari deitzeko baimena du, guri ez, eta bada- kit abokatuak zorionak eman zizkiola gure partez. Ez dakit ezer gehiago, be- rarekin zuzeneko komunikaziorik gabe jarraitzen dugu.

Espioitza egozten diote.

Zein dira frogak?

Ofizialki dakigun gauza bakarra da es- pioitza egozten diotela, Poloniako zigor kodearen 130.1 artikuluan oinarrituta, urte batetik hamar arteko espetxe zi- gor arriskua duela, eta hiru hilabete- ko behin behineko espetxealdia maia- tzaren 29 arte duela. Frogei buruz ez dakigu ofizialki ezer. Poloniako aldiz- kari batzuek, hango ministro batzuek esandakotik abiatuta informazioa ater- a izan dute. Esan zuten GRU edo Erru- siako estatu nagusi militarreko agen- te izatea egozten ziotela. Hori zeharka dakigu. Poloniako autoritateetatik ez da ezer heldu, ez frogarik ez ezer. Zer kargu leporatzen dizkioten kontsularen bidez dakit. Karta bat heldu zitzaidan Rzeszów eskualdeko epaitegitik, soilik esateko hiru hilabetez edukiko zutela espetxean, ez zuten kargurik aipatu ere egiten, frogak gutxiago.

Zer moduz daramazu zure senarra espioia dela sortu den susmo giro hori? Hedabide batzuk zuri zuzenean galdetzeraz iritsi dira. Zer pentsatzen duzu une horietan?

Lehen aldiz esan zidatenean, zur eta lur geratu nintzen. Radio Euskadiko kaze- tari bat izan zen. Ez nion esan pentsa- tzen nuena, flipatuta geratu nintzen. Ba ez, ez da espioia, zer nahi duzu esatea? Orain ohitu naiz, galdera horri askotan erantzun behar izan diot. Sare sozialak eta abar ez ditut irakurtzen, lantzean behin ingurukoek artikuluren bat edo beste bidaltzen didate, baina ezer txar- rrik ez. Babesten naute eta minik egin ezin didatena bidaltzen didate; bestela- korik ez dut irakurtzen.

Poloniako zerbitzu sekretuek interrogatu dute. Badakizu zer moduzko tratua eman dioten?

Kontsulak esandakotik dakigunez, bi- dezko tratua eman diote, ez txarra. In- komunikazio egoeran ofizialki egon ze- nean, lehen 48 ordu horietan, zer tratu emango zioten ikaratuta egon ginen. Antza denez, ez da tratu txarrik izan. Eta gero etorri da inkomunikazio aldi ez ofiziala.

Gonzalo Boye bere abokatuaz gain, Poloniako abokatu pribatua du orain...

Bere konfiantzazko abokatu Gonzalo Boye da, baina tira, orain behintzat ez da epaituko duen estatuak jarritako ofi- ziozko bat.

Noiz fitxatu zuen Boye?

Ukrainiako zerbitzu sekretuek Kieven atxiki zutenean, atxilotu baino lehena- go, eta jakin zutenean Espainiako zerbi- tzu sekretuetako agenteak gure etxera etorri zirela, Gonzalo kontratatu zuen, badaezpada ere.

Zer esaten dizue Boyek?

Denborarekin jolasten ari direla, akats burokratiko bidez denbora luzatzen, bera Pablarekin harremanetan jartzea atzeratzeko.

“

*Espainiako Gobernuak
Polonia babestu du
Pablo beharrean,
eta horrek min handia
ematen du”*

Eta zer egin daitekeen? Gonzalok aipatu izan du nazioartean presioa egiteko kanpaina baten beharra.

Ez dakit zehazki zer duen buruan, ba- tez ere mezularitza bidez daukat harre- mana eta hor ezin da asko sakondu, eta gainera orain giroa nola dagoen ikusita [Boye Pegasusekin zelatatutako Cata- lanGate eskandaluko zerrendan dago], topera dabil Gonzalo.

Luzatu liteke behin-behineko espetxealdia?

Bai, kontsulak hasieratik esan zidan

hiru hilabeteke espetxealdia beteko zuela eta gero normala litzatekeela lu- zatzea. Laburtzea ez.

Zer espero duzu epaiketarik?

Ez dakit. Nahi nuke Polonia kontura- tzea hanka sartu dutela eta aske uztea. Baina gauzak dauden bezala ikusita, guda testuinguruarekin, ez naiz fida- tzen. Ez dut uste besterik gabe aitor- tuko dutenik hanka sartu dutela. Baina tira, esperantza mantendu behar da.

Babesgabe sentitzen zaretela esan zenuen elkarrizketa batean. Zer iruditzen zaizu agintarien jarrerara?

Espainiako Gobernuak Polonia babestu du Pablo beharrean, eta horrek min handia ematen du. Esan zuten ontzat ematen zituztela Poloniaren ekinbidea eta azalpenak, jakinik bere oinarritzko eskubide asko zapaltzen ari direla, izan familiarekin zuzenean harremana iza- teko eskubidea eta hasieratik konfian- tzazko abokatu izatekoa. Azalpena eta ekinbidea ontzat ematea oso mingarria da. Horrez gain, Pedro Sanchezek esan zuen Pablok eskatu zuela dena sekre- tuan gordetzeko eta hori ez da egia. Hori Poloniak eskatu zuen hasieran, Pablok ez dauka ezkutatzeko ezer.

Eta Euskal Herriko agintariena?

Eusko Jaurilaritzako kanpo harrema- netako idazkaritza nirekin hasieratik jarri zen harremanetan, tratua oso ona izan da. Baina ezin dute gauza handirik egin, kanpo harremanetako eskudun- tza ez baita Jaurilaritzarena, Espainia- ko Estatuarena baizik. Mugatuta dau- de. Egin ahal izan dutena egin dutela uste dut.

Free Pablo Gonzalez kanpainak kazetari andanaren babesa jaso du.

Bere ezagunek mugitu dute kasua, he- dabideek baino gehiago. Babesa adie- razi diote bera ezagutzen ez duen jen- de askok, eta eskertzekoa da. Halere, pixka bat harritzen nau kazetaritza gremio gisa ez eskandalizatzea gerta- tzen ari denarekin. Abisu bezala har daiteke, eta ez dakit abisu horrek ez ote duen jada eragina izan.

Zein da hurrengo pausoa?

Zerbait prestatzen ari zarete?

Epaiketaren zain gaude. Hasi da atzera kontaketa, maiatzaren 29ra arte. Ea zer pasatzen den eta baldintzapean edo aske uzten duten. ●

NOLA ESAN/IZAN BOLLERA EUSKARAZ

“Oso inportantea da hizkuntzarekin jolastea hitzak falta direnean”



Glosarioa, ekarpenak, bizipenak eta sorkuntza piezak batu dituzte Amaia Alvarez Uria filologoak eta June Fernandez kazetariak Zinegoaken webgunean. Bertso-saio zein solasaldi/errezital formatuen bidez zabaldu dituzte edukiak eta horietan azaleratutako hausnarketak. Urte luzez oso bereziak egon diren bi munduren (komunitate lesbikoa eta euskal kultura) gerturatzea ere bada egitasmoa. ARGIAko bi kolaboratzaileen arteko solasa da hurrengoa.

 JUNE FERNANDEZ

June Fernandez: Aitor Aranaren *Gay hiztegiaren* baliokide lesbianoa sortzea izan zen gure hasierako asmoa. Proiektuaren lehenengo fasean, prozesu parte-hartzailearen bidez jaso genituen hitzak eta horiei buruzko azalpena, genealogia, hausnarketak... Zer nabarmenduko zenuke Hitzak eta Ekarpenak ataletatik?

Amaia Alvarez Uria: Fillogoa naizenez, aspaldiko kezka dut hizkuntzaren erabilera, baita diskurtsoa ikuspegi feminista eta lesbikotik aztertzea ere: zein errealitate agertzen diren erabiltzen ditugun hitzetan, zeintzuk ez eta zergatik. Glosategi bolleroa sortzeko prozesua oso polita izan da. Lehenengo hipotesia konfirmatu dugu: erdal maileguekin funtzionatzen dugula, hau da, jende gehienak *bollera* hitza erabiltzen duela. Edonola ere, sorpresa izan da ikustea euskaraz bizi den jendeak sorkuntzarako eta jolaserako joera baduela.

Fernandez: Nik ez nuen gipuzkoarren *kuku* ezagutzen. Eli Pagola bertsolariak azaldu digu Azkoitiko Kuku Herri auzo-

ko aterpetxean EHGAren kanpaldiak egin zirelako hedatu dela. Bollurriak topaketan egitarauan topatu dut (kukupoteo, kukufesta) eta HARRObira transmaribibollo bizikleta martxaren leloan: “Kuku bira dabil!”. Halaber, B.A.L.A. taldeak sortutako *bollojabetza* nabarmenduko nuke, eta Maider Arregi bertsolariak lagun artean erabiltzen duen *lesbiama*. Aldiz, ez da agertu historikoki herrietan erabili den terminorik; *tortillera* eta *marimutitez* gain, inork ez du bestelako erreferentziarik. Horrek erakusten du lesbianismoa inguratu duen tabua eta ikusezintasuna.

Alvarez: Bestetik, hizkuntzari buruz pentsatzen dugunok proposatutako terminoak ditugu, baina ikusi dugu batzuetan komunitatetik urrun geratu direla.

Fernandez: Egia da *pipelopila* edo *soropila* bezalako proposamenek ez dutela arrakasta handirik izan. Kezka adierazi didazu, gure egitasmoaren ikuspuntua garbizalekeriarekin lotu daitekeelako...

Alvarez: Badago halako presio sozial

bat euskara garbia erabiltzeko. Euskararik onena da erabiltzen dena, bizirik dagoena. Galdetu dugunean zein hitz erabiltzen dituzten identitate eta praktika bolleroak izendatzeko, askotan elkarrizketatuen erreakzioa *mea culpa* moduko bat izan da: “Egia da! Ez dugu euskal hitzik erabiltzen!”. Ez zen hori gure asmoa, errealitatearen argazki bat ateratzea baizik. Maileguak betidanik erabili izan dira euskaraz eta hizkuntza guztietan.

Fernandez: Dena den, Itxaro Bordak proiekturako idatzi duen ipuinean ironiaz gogorarazi digu *bollera* Hego Euskal Herriko terminoa dela. Nik ez nuen frantseseko *gouine* ezagutzen, Ipar Euskal Herriko bollerek darabiltena.

Alvarez: Itxaro Bordaren ipuina ederra da, kezka soziala kezka linguistikoarekin gurutzatu duelako, beti egiten duen bezala. Bi protagonista elkartu ditu: Hegoaldeko *bollera* eta Iparraldeko *gouine*, bakoitza bere terminoaren alde egiten dutenak. Oso polita izan da gaiari ikus-



Proiektuaren aurkezpena Zinegoak jaialdian. Tartean daude June Fernandez (eskuinetik lehena) eta Amaia Alvarez Uribe (ezkerrean, zutik).

pegi desberdinetatik heltzea, ez bakarrik iparretik edo hegotik, baizik eta erdal-hiriburuetatik edota euskal-arnasguneetatik, belaunaldi diferenteetatik... Zenbait hitzek 40 urte inguru ditugunon artean funtzionatzen dute, ez ordea 20 urtekoen artean.

Fernandez: Bollera gazteek ez omen dute "ulertzen duzu?" galdera ulertzen...

Alvarez: Ulertu, ulertzen dute, baina ez dute erabiltzen. Aldiz, Pasaia Argi Lertxundik aipatu digu lagun artean "gremio-koa izan" erabili izan duela gauza bera adierazteko.

Fernandez: Zuk zeuk proiekturako asmatu dituzu *lesbisitaria* (gaztelaniazko *heterocuriosa* esateko) edota *marioker* (ingelesezko *queer*-en baliokide moduan). Sexu-praktikekin ausartu da Ana Jaka idazlea: *hankartetu* edota *potomungus* sortu ditu. Ariketa jostagarria da, baina zertarako balio du, gero inork ez baditu erabili?

Alvarez: Zalantza edota mesfidantza agertu dira hitzak jolasaren bidez eta hiz-

“

Itxaro Borda izan da urte askotan euskal literaturako erreferente bollero bakarra. Belaunaldi aldaketarekin, Kattalin Miner eta Danele Sarriugarte agertu ziren. Oso polita izan da deskubritzea euskal bollo literarioak poesian agertu zaizkigula

Amaia Alvarez Uribe

kuntzaren senari edo mekanismoei nahikoa erreparatu gabe sortu ditugunean. Esaterako, *soropila* proposatu genuenean, Lumatza kolektiboak kamisetetan erabili zuen ("Nafarroako soropil feministak"), baina taldekide guztiak ez zeuden horren alde. Agian hitz hori ez zen egokiena, baina uste dut jolasa oso inportantea dela hitzak falta direnean. Gero ikusiko dugu hitz bakoitzak egingo duen bidea, onartua izango den ala ez, jendeak gustuko izango duen... Duela urte batzuk, Kike Amorrainiz eta Asisko Urmenetak gazte hizkera biltzeko zein sortzeko proiektua egin zuten, eta hitzak asmatzearen zilegitasuna defendatu zuten. Azken adibide bat: Fermintxo Zabaltzak erronka handia izan zuen *Stonebutch* blues itzultzeko orduan. Aitortuko dizut *Marimutil handi baten bluesa* izenburua ikusi nuenean, ez zitzaizkida gustatu, ez zuelako indar ezta esanahi berbera. Alabaina, oso polita iruditu zait ikustea bollera euskaradunak hasi direla *marimutil handi* erabiltzen. Hortaz, *chapeau*, Fermintxo!

IDENTITATE ESTRATEGIKOAK

Fernandez: Ana Jakaren esanetan, hitzak inportatzeak identitateak inportatzea dakar. Agian beste hizkuntzetatik heltzen zaizkigunak ez datoz bat gure errealitateekin, ezta? Esaterako, esango nuke gurean *butch-femme* desio dinamikak lausoagoak direla, euskal luma deitutakoa delako nagusi; gure belau-naldietako bollera gehienok feminitatea deseraiki dugu.

Alvarez: Bai, euskal bollera bat armairutik ateratzen denean egiten duen lehenengo gauza ilea moztea da! Belaunaldi aldaketarekin gero eta *femme* gehiago ikusten dira; era berean, Uxue Alberdik seinatu zuen emakumezko bertsolarien artean *drag king*etatik panpinen arketiporako jauzia. *Barbarismos queer* liburuaren egileek azpimarratzen dute oso beharrezkoa dela transfeminismoak ingelesetik hartu dituen terminoen interpretazio lana egitea. B.A.L.A.ko kideek etengabe egiten dute: unibertsala tokian tokiko errealitatera egokitzen dute.

Fernandez: Esaterako, *pinkwashing* kontzeptua azaltzeko darabilte Laboral Kutxaren iragarkia (bi nesken arteko ezkontzaren argazkia hipotekak saltzeko erabiltzea). Aizu, aurtien elkarrizketatuei galdetu diegu nola bizi duten *lesbiana* eta *euskaldun* identitateen arteko harremana. Galdera itzuli nahi dizut zuri.

Alvarez: 40 urte baino gehiago ditut; ibilbide luzea da nirea. Hasieran Bilboko anbientearen erdalduna zen eta euskal munduan oraindik ez zegoen bollera publikorik. Belaunaldi bat behar izan da bi munduak hurbiltzeko. Deustuko gazte lokalean ikusi nuen "Sexualitatea askatu" kanpaina gogoratzen dut, mugarrria izan zena; uste dut Jarrairena zela. Eztanda moduko bat egon zen orduan: neska guztiak hasi ziren elkarrekin ligatzen. Mutilak ez hainbeste. Gogoan dut mutil baten komentarioa: "Beno, hau moda hutsa da, pasatuko zai-zue". Hala, Ainhoa Güemes artista bilbotarrak aipatzen du Jarrain lesbianizatu zela. Gaur egun, belaunaldi berriak ez dauka anbienterik; baditu ordea aplikazioak eta Bollurriak, elkarrekin egoteko beste modu agian ez hain getizatuak.

Fernandez: Taldeetako kideei egin diezkiegun elkarrizketetan konfirmatu dugu mugimendu lesbofeminista nabarmen euskaldundu dela.

Alvarez: Euskal Herriko azken hiru jardunaldi feministak alderatzen badiugu, euskarak gero eta erabilera zein zentralitate handiagoa du. D ereduaren

Maren Zubeldia
(proiekturako
elkarrizketatuetako
bat), Zinegoakeko
karteletako bat eskuan
duela: Marioker.



ondorioz, ezagutza asko handitu da, eta horrek ondorioak ditu, jakina.

Fernandez: Elkarrizketatuen artean nagusienak, Maite Irazabalek, euskara galdu zuen Elorriotik Madrilera, Londresera eta Bilbora mugitu zenean. Esan digu gure proiekturako hitz egin duela lehen aldiz euskaraz lesbofeminismoari

buruz. Ondo legoke sexilioaren ondorio linguistikoen erreparazio modukoren bat lantzea.

Alvarez: Euskararen galera, zoritxarrez, oso ohikoa izan da. Horrek ekarri du garbizalekeriarako joeratzu hori, egoera ez delako ona. Asisko Urmene-tak gure barruko euskaltzainak aipatu

zituen, eta baditugu gure barruko apai-
zak edota poliziak ere; interesgarria da
mamu horiek esplizitatzea, bi identitate
zapalduen arteko gurutzaketak eginez.
Euskaldunok autogorrotoaz hitz egiten
dugu eta, lesbianok, barneratutako les-
bofobiaz.

Fernandez: Garazi/Gatx Eizagirrek
esan digu denborarekin zabaldu zaiola
euskalduna eta *lesbiana* kategoriak ulertze-
ko modua. Transfeminismoaren edo-
ta arrazakeriaren aurkako borroka-
ren eragina agertzen da gazteen bizipene-
tan. Egun badakigu lesbiana transak eta
euskaldun arrazializatuak existitzen di-
rela. Bestetik, Josune Ortizek zalantzan
jarri du sexualitateari lotutako etiketak
oraindik ere beharrezkoak ote diren.

Alvarez: Identitateen erabilera estra-
tegikoaren aldekoa naiz, B.A.L.A.k ondo
azaltzen duena. *Nola esan/izan bollera*
euskaraz? izenburuarekin zera adiera-
zi nahi genuen: ez badugu izendatzen,
ez da existitzen. Subjektu guztiei lekua
egiteko, den-denak aipatu behar ditu-
gu, bollarak barne. Uste dut inportantea
dela kategoriak esplizitatzea, ondoren
esanahiak malgutzeko.

Fernandez: Sortzaileen lanak jaso di-
tugu aurten, gehienak literatura arlo-
koak. Hiru belaunaldi batu ditugu; Itxaro
Borda, Danele Sarriugarte eta poeta gaz-
teak: Oihana Arana, Leire Vargas, Lizar
Begoña, Eva Pérez-Pons eta Elena Olave.

Alvarez: Itxaro Borda izan da urte asko-
tan euskal literaturako erreferente bol-
lero bakarra. Belaunaldi aldatetarekin,
Kattalin Miner eta Danele Sarriugarte
agertu ziren. Oso polita izan da desku-
britzea euskal bollo literarioak poesian
agertu zaizkigula. Euskal literatura sis-
teman ospea duen generoa da, irakurle
gutxi dituen arren. Aztertzea da zer-
gatik egon den azken idazle bolloen ar-
tean narratibatik poesiarako desplaza-
mendua; akaso poesia niaren literatura
delako. Bertsolaritzan ere eztanda bol-
lora egon da; gainera, aipatutako poeta
asko bertsolariak dira. Zer esango zenu-
ke horri buruz?

Fernandez: Euskal kultura eta lesbo-
feminismoaren arteko hartu-emanaren
adierazle bereziki inportanteak dira bol-
lora bertso-saioak. Oso nabarmena izan
da bertsolariek komunitate feminista
indartzeko izan duten gaitasuna; hor
ditugu bertso-eskola feministak, *Ez da*
kasualitatea saioak, *Kontrako eztarritik*
liburua... Imajinatzen dut saretze horrek
erraztu duela bollaren ikusgaitasuna eta

haien artikulazioa. Gehienak gazteak
dira, baina Amaia Agirre (40 urte luze di-
tuenak) da gure proiektuan gehien parte
hartu duena, eta esan du berarentzat
oso hunkigarria dela gazteen ahaldu-
ntze hori (esaterako, Saioa Alkaizak txapela
transmarikabolloei eskaini izana), bere
prozesua motelagoa izan delako.

EUSKAL IRUDITERIA BOLLEROA

Fernandez: Idazleez gain, musikariak
eta artista bisualak ditugu proiektuan.
Dom Campistronek gogorazi digu eus-
kal bolleroen hiztegiak iruditeria ain-
tztat hartu beharko lukeela. B.A.L.A.k lan
ederra egin du alor horretan, bereziki,
ahobizi pegatinaren bidez.



*Ikusgarritasun lesbikoa
indartu dugu, euskal
kulturan, euskalgintzan,
kazetaritzan eta Bilboko
kaleetan. Itzela izan
da 'lumatz', 'soropila'
eta 'marioker' berbak
Zinegoakeko karteletan
handi-handi ikustea!*

June Fernandez

Alvarez: Ildo horretatik, 90eko hamar-
kadako talde lesbofeministen kartelak,
pegatinak eta aldizkariak nabarmendu-
ko nituzke. Musikari dagokionez, Pot-
tors eta Klito gonbidatu ditugu. Hala
ere, musikari bollero oso gutxi ezagu-
tzen ditut armairutik kanpo; deigarria
egiten zait, musikak euskal kulturan
duen indarra eta presentzia kontuan
hartuta.

Fernandez: Bestetik, Zinegoakeko Ma-
ren Zubeldiak ikus-entzunetako errefe-
renteen errepaso egin du. *The L Word*
telesail estatubatuararekin *bollojabetu*
ginen gure belaunaldikook. *Goenkalen*
Itziar Ituño eta Naroa Agirrek gorpuz-
tutako pertsonaien maitasun istorioa

aipatu du. Zinemagintzan, *80 egunean*
txalotu du, nahiz eta Moriarti ekoiztetxe-
ko gizonezkoek sortu zuten.

Alvarez: Oso pelikula ausarta izan zen
bere garaian, erakarpen sexuala senti-
tzen duten bi emakume zaharren harre-
mana kontatu zuelako. Eskertzekoa izan
zen tragediarekiko joerarekin apurtu
zuela; historikoki bolloen eta gayen fil-
mak oso dramatikoak izan dira. Dena
den, iruditzen zait *80 egunean* apur bat
ahaztua geratu dela, egileek ez dutela
haien beste lanak bezainbeste aldarri-
katzen (*Loreak* kasu). Gaur egun, *Go!a-
zen* telesaila aipatu behar dugu: bikote
bolloak protagonismoa izan du azken
bi denboraldietan, baina berandu heldu
da. Inportantea da erreferenteak eduki-
tzea, baina gero aztertu behar dugu zer
erreferente mota diren, askotan ukitu
moralista daukatelako, maitasun erro-
mantikoa eta monogamiari oso lotuta.

Fernandez: Euskal kulturaz aritu gara.
Hitz egin dezagun orain euskalgintzaz.
Proiektu honen abiapuntua izan zen
Elhuyar hiztegiak gaztelaniako *bollera*
eta *tortillera* itzultzerakoan lesbiana soi-
lik iradokitzen duela, nahiz eta kutsu
oso desberdina duten. Euskaltzaindia-
ren hiztegiak onartu ditu *homofobia* eta
transfobia, ez ordea *lesbofobia*. Lortuko
al dugu hiztegiaren eragiten?


Alvarez: Ez dut uste ikusiko dugunik
bollera hitza Euskaltzaindiaren hizte-
gian. Hiztegia apurka-apurka zabaltzen
doa, baina badakigu akademia beti doala
tentuz, aldaketa sozialen atzetik. Ikusiko
dugu!

PROIEKTUA, BI HITZETAN

Fernandez: *Bollojabetza*. Egindako la-
nak indartu ditu nire ahaldu-ntze bolle-
roa eta nire euskaltzaleasuna. Gainera,
ohartu naiz bollojabetza ariketa dela
nor bait proiektura gonbidatzea: koor-
dinatzaileontzat (oraindik ere tabua
delako nor bait bere sexu-orientazioari
buruz galdetzea) zein partaideentzat
(marioker ikusgai moduan agertzea
dakarrelako). Ikusgarritasun lesbikoa
indartu dugu, euskal kulturan, euskal-
gintzan, kazetaritzan eta Bilboko kale-
tan. Itzela izan da *lumatz*, *soropila* eta
marioker berbak Zinegoakeko karte-
letan handi-handi ikustea!

Alvarez: *Elkargunea*. Oso gurea den
intersekzio bati erreparatu diogu, eta
ikusi dugu zenbat ertz eta erpin biltzen
diren hor. Hori izan da gure ekarpen-
txoa. ●

Oscar Wilde kalera, LGBT mugimenduarekin batera



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Reading (Ingalaterra), 1897ko maiatzaren 19a. Oscar Wilde (1854-1900) idazle irlandarra espetxetik irten zen, “sodomia eta lizunkeria larriagatik” bi urtez giltzapean egon eta gero. Lauzpabost egun lehena, maiatzaren 14an edo 15ean, Berlinen, Batzorde Zientifiko Humanitarioa (*Wissenschaftlich-humanitäres Komitee*, WhK) sortu zen, harreman homosexualak debekatzen zituen Alemaniako zigor kodeko 175. artikulua aurreratu kanpaina abiatzeko; LGBT eskubideen aldeko lehen erakundea izan zen.

Duela 125 urte bi gertakariok egun gutxiren buruan kointziditzea kasualitatea da, baina garai hartako homosexualen aurkako giro bortitza, ordea, ez. Oscar Wilde pertsona ezaguna zen eta hari ezarritako zigorra ereduargarria izatea bilatu zuten. Epaia oihartzun handia izan zuen, eta sexu nahiz genero askatasunarekiko intolerantzia gordintzea eragin zuen, ez soilik Britainia Handian, Europa osoan baizik. Artista homosexual askok errepresaliak jasan zituzten. Alemanian, esaterako, Paul Höcker margolariak erbestera jo behar izan zuen.

Alemanian 127. artikulua indarrean zegoen, gizonezkoen arteko sexu harremanak kartzelarekin zigortzen zituena; legeak ez zituen emakumeen artekoak jaso ere egiten. Eta lege horren aurka egiteko bildu ziren Magnus Hirschfeld sexologoa, Max Spohr edi-



Duela 125 urte LGBT eskubideen aldeko munduko lehen erakundea sortu zuten Berlinen, besteak beste, Magnus Hirschfeld sexologoa (ezkerrean, Li Shiu Tong bikotekidearekin). Handik egun gutxira, Ingalaterran, Oscar Wilde (eskuinean) aske utzi zuten.

torea, Eduard Oberg jurista eta Franz Joseph von Bülow idazlea. Hirschfelden etxean bertan sortu zuten Batzorde Zientifiko Humanitarioa eta haren teoria hartu zuten oinarri: homosexualitatea gizonen eta emakumeen arteko “hirugarren sexu” biologikoa zen. Batzordeak ez zuen lortu teoria hedatzea eta onartzea, baina helburu garbia zeukan: homosexualitatea jaiotzetik bazetorren, hautatutako jarrera ez bazen, zuzenbideak ezin zuten zigortu.

1897ko udaberriko aste horretan gertatutakoak ez zuten berehalako al-

daketa ikusgarriarik eragin. Oscar Wilde “materialki eta espirituali lur jota” irten zen espetxetik, Frank Harris idazle irlandarraren hitzetan, eta geratzen zitzaizkion urte apurrak erbestean, Frantzia, eman zituen. Hirschfelden determinismo biologikoa barne zatiketarik eta kritikak eragin zituen batzordean. 1929an Hirschfeld bera dimititzera behartu zuten. Beraz, 1933an naziak Batzorde Zientifiko Humanitarioa desegin baino lehen ere, LGBT eskubideen aldeko mugimendu antolatua aitindaria ahulduta zegoen. ●



WELLCOME IMAGES / SMITH ARCHIVE



EMPICS

Baratxurietatik txandalera

Frantsesez, *marchand d'ail* esamoldeak “baratxuri saltzailea” esan nahi du, literalki, baina fruta eta barazki saltzaileak orokorrean izendatzeko erabiltzen zen.

XIX. mendearen amaieran Parisko frutariak jertse berezi batzuk jantzi ohi zituzten eta, *marchand d'ail* laburtuz,

jantziari *chandail* esaten hasi zitzaizkion. Oso eroso zenez, kirola egiteko erabiltzen hasi ziren eta, jertseari ez ezik, kirolerako galtzei ere txandal esango zioten aurrerago. Berezi azken bi urtetan, kirola edo beste ezer ez egiteko oso eroso eta aproposa dela frogatu du txandalak. ●

Amuak, sareak

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Edo sare sozialetan bazaude, edo ez zara inor. Ikusezina zara. Hori da gaur egungo joera, askoren pentsaera eta askorentzat errealitatea. Baina sare sozialetan egoteak zer esan nahi du? Edozein modutara egoteak balio du? Zer komunikazio estrategia erabili behar ditu hedabide batek sare sozialetan funtzionatzeko? ARGIAk formazio saio bat egin berri du Hiru Damatzorekin eta hasteko, egin dute balorazio bat eta jaso dituzte iritziak eta aholkuak. Hemendik aurrera, egiteko aukera zabala dago, sare sozial bakoitzak irekitzen dituen atea adina.

Aztertu dituzte, batez ere, Twitter eta Instagram –ARGIAk badu bere kontua batean zein bestean–. Ez dira sartu Facebook-en, baina errepasatu dituzte gazteen artean azken joera diren Twitch eta Tik Tok ere. Errepasatu dute ARGIAk dagoeneko kontuak dituen bi sare sozialetan zer nolako jarduna duen. Asier Kortabarria “damatxoa” izan da saioaren bideratzailea eta haren iritziak “gauzak nahiko txukun egiten dira”, baina badaude ARGIAri baliagarri izan dakizkioken zenbait tresna eta horrek emango lieke edukiei beste plus bat, zabalpenari begira.

Komunikazio estrategia bat planteatzen denean helburuak jarri behar dira lehenik. Helburu bat edo beste

izan, edukiak zabaltzeko moduak ere desberdinak izango direlako. Helburuak markatu eta hori betetzeko teknikarik egokienak planteatu beharra dago. Sare sozialetan, gainera, komunikazio estrategiaz ari garenean algoritmoak presente eduki behar ditugu. Jakina den bezala, horien arabera funtzionatzen dute, eta jendeak guk zabalduko edukiak ikustea nahi badugu, badaude formulak algoritmo horiek “saritu” gaitzaten eta guk zintzilikatutakoak zerrendaren lehen postuetan ager daitezten.

EUSKARAREN PRESENTZIA

Kortabarriak azpimarratu du “sare sozialetan badaudela zenbait espazio euskaraz ez direnak landu edo ez denik proposamen seriorik egin eta akaso hor badagoela zer eginga”. Erabiltzaile euskaldunak badaude, eta asko, sare sozialetan; erdaraz funtzionatzeko joera baldin badago ere.

Dena den, Kortabarriak garbi dio botatuko proposamen eta aholku guztiek lan gehiago suposatzen dutela eta ahalik eta gehien optimizatu behar direla esfortzuak. Baina dena doa abiadura bizian. Sare sozial berriak datoz arrapaladan eta hor lekua topatzea ez da erraza. Baina hor ez bazaude, ez zara inor. Hor erronka. ●



DANI BLANCO

Asier Kortabarria Hiru Damatzoko kidea ARGIA-n izan zen sare sozialez hitz egiten.



‘Txori Urdinak’

Espetxearen erretratu bat Santi Cobos presoaren ahotik

“Espetxe sistema eta zigorraren kultura: kritikak.. eta alternatibak?” izenburupean, liburu aurkezpena eta solasaldia.

Parte hartuko dute: Zigor Olabarria, ARGIAko kazetaria eta liburuaren egilea; Filipe Bidarte (Ortzaize) eta Lorentxa Beyrie (Baiona) euskal preso politiko ohiak.

🕒 **Maiatzaren 20an 19:00etan**

📍 **Ortzaize** Menta liburudenda

🕒 **Maiatzaren 26an 19:00etan**

📍 **Baiona** Epaiska elkarte

Ez gara kolonialistak, baina...

Axier Lopez ARGIAko kazetariaren hitzaldia, “gure” esklabista eta kolonialistez, Elkanoren Mundu Biraren V. mendeurrena oinarri.

🕒 **Maiatzaren 24an 18:00etan**

📍 **Gatika**

‘Bidean’

Aurrera egin nahi duen

irakaslearen dekalogo

Koldo Rabadan Izagirre irakasleak liburu aurkeztuko du.

🕒 **Maiatzaren 24an 17:00etan**

📍 **Urretxu** Gainzuri ikastetxea

Zure herrian hitzaldia antolatu nahi?

Idatzi solasaldiak@argia.eus helbidera eta berehala erantzun dizugu.



ZIABELARRA ETA MAITE-BELARRA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Goi mailako gazta bat dastatua dut lehengo astean. Ez dut gazta jateko ohiturarik baina tarteka, gazta bitxiren batekin topo egingen dudanean ez dut mokoa okertzen. Gazta urdina zen, behi esnez Mutiloako Lenkaran auzoko Odio baserriko Beñat Telleriak egindakoa. Aho sabaian leun eta goxoa, bikaina! Ordiziako azokan duen saltokian azaldu zizkidan gazta hori finitzen zenbat urte behar izan dituen eta abar, baina niri galdera bat egitea ahaztu: zein gatzagi erabiltzen ote duen, alegia. Lehen ere aipatu izan ditut esneak gatzatzeko onak diren landareak: baratzekardua edo kardabera (*Cynara cardunculus*) eta ziabelar horia, gatzagi-belarra, etxekalaba-belarra edo legar-belarra (*Galium verum*) behintzat bai. Azken horrek izenetan du lana: esnea mamitzeko, gatzatzeko edo ziatzeko legarra behar... *Galium* bera ere grekoko *gala* (esnea) hitzetik dator. Esnea besterik hartu ez duen hausnarkariaren kumeak gatzagia deituriko urdailean du esne hori gatzatzeko gaia, "liburua" edo "librusantxa" esaten zaiona. Horrekin edo landareekin mamituko da gazta izango den esnea. Edo gatzagi kimikoarekin...

Ziabelar horiaren ahizpa da ziabelar latza edo lapa txikia (*Galium aparine*). Itxuraz, horrek ere gatzatzen du esnea,



Ziabelar latza edo lapa txikia (*Galium aparine*).

baina beste ezaugarri eder bat ere badu. Urteko belar ahul samarra da eta hazteko aldameneko beste landareen gainean luzatzen da. Horretarako hosto, txortan eta landare guztian dituen kako oker moduko batzuk baliatzen ditu. Landarea ukituz gero latza da, zenbait hotzikara ematen dio. Materia organikoz osatuta dauden lur aberatsak maite ditu, baratzetean eta landare-hesietan ugaria da.

Kakoen medioz, hor dabilen baratzezainaren praken barrenetara ederki itsasten da, eta ohikoa da ziabelar latzaren zati bat erantsita daraman ortuzaina.

Gaztelaraz "*amor de hortelano*" esaten diote. Beste izen asko du, eta batek baino gehiagok bere laztasunak mingainean sortzen duen mina aipatzen du. Hortik ote dator bere "lapa txikia" izena? Lapatu miaztu da, miazkatu.

Lapa-belarra ere (*Arctium lappa*) aipatu izan dut hemen: bere haziak hedatzeko animalien ileetan zintzilikatzeko kakoak dituen fruituak ontzen ditu. Eredu hori imitatuz asmatu zen belkroa.

Euskaraz lapa-belarrari eta ez lapa txikiari esaten zaio "maite-belarra". Nork maite ote gaitu gehiago, lapa-belarrak edo lapa txikiak? Biek ere asko, izan ere bere haziak ematen, eransten dizkigute zabaldu ditzagun. Irlandan lapa txikia maiteago izango dute, beren hazi horiek kafearen ordezkio gisa erabili izan baitituzte.

Ziabelar latza belar oso ona da jateko. C bitamina asko du; eskorbutuari aurrea hartzeko erabili izan da. Baita barruak garbitzeko ere. Zukututa edo egoskin bezala. Ozpina ere egin dezakezu: bere zarbak txikitu eta ontzi batean jarri eta sagardo ozpinez estali. Aste pare batera iragazi eta pronto! ●



943 64 17 10
www.endanea.com

Baratztea etxean

Barazkiak, landare usaintsuak edo jangarriak etxean ekoiztea oso erraza da. Anima zaitetz!

Online denda ➡



BARATZAN BLAI

“KONTSUMITZAILE-EKOIZLE HARREMANA KOOPERATIBOAGO EGITEA DA GURE ASMOA”



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Bizitza proiektu kolaboratiboa da Artiedako “Arterra Bizimodu” eta bere baitan bada baratzeari eta elikagaien ekoizpen agroekologikoari begirako egitasmo bat: Baratzan Blai. 2016an abiatu zuen ekoizpena Adrian Aretak, Arterako kideei eta bertako jangelari elikagaiak eskaintzeko asmoz lehenik, eta hurbilean barazki ekologikoen saskiak banatuz baratzetik bizitzeko ideiarekin gero. “Proiektuko jangelari jaten ematen diogu gaur egun, eta horretaz gain, hogeit bat pertsonak urteko harpidetza baten truk bi astetik behin barazki-saskiak jasotzen dituzte etxean”, azaldu du ekoizleak.

KOMUNITATEAK SOSTENGATUTAKO NEKAZARITZA

Abizen hori darama Baratzan Blai proiektuak. Baina, zertaz ari dira zehazki Komunitateak Sostengatutako Nekazaritzaz –ingelesez CSA, *Community Supported Agriculture*– dihardugunean? “Oinarrian, nekazarien eta kontsumitzaileen arteko elkarlan modu bat da, zeinetan arriskuak eta onurak partekatzen diren”, diote proiektuaren aurkezpenean. Honela laburbildu du Aretak: “Kontsumitzaileen eta ekoizleen arteko harremana aldatzea da gure ideia, harreman horiek kolabo-



ratiboagoak egitea, elikagai osasuntsuak jan ahal izatea guztion kontua baita, ez nekazariona soilik. Kontua da guk arrisku asko hartzen ditugula gure gain, uzta txarra edukitzea, adibidez”. Hori horrela, proiektuarekin bat egiten duten kontsumitzaileek urteko kuota ordaintzen dute, nekazariarekin konpromiso handiagoa hartuz eta urteko plangintza egiteko aukera emanez.

Iruñean etxetik etxe banatzen ditu Aretak barazki-saskiak bi astetik behin, guztira hogeit bat etxetara iritsiz. Urte-

ko kuota, ordea, ez da denentzat bera: norberaren aukera eta ahalmenara egokitzen da prezioa, beti ere minimo batzuen barruan. “Hurbileko produktu ekologikoak eta osasuntsuak guztion eskura egon beharko luketela uste dugu, horregatik ematen dugu aukera hori”, azaldu du. Orain arteko ibilbidean, ongi funtzionatu dute modu horretan, eta jendeak produktuak baloratzen dituela dio nekazariak.

GOLF ZELAITIK BARATZERA, EDERRA ALDEA

Artiedan eta hurbileko herri batean ditu lursailak Aretak; guztira, hektarea inguru. Partzeletako baten jabeak Arterra Bizimodu proiektuari utzi zion lurra, eta honek, berriz, Baratzan Blairi. “Golf zelai bat zen Artiedako lursail hau gu iritsi arte... buelta ederra eman diogu!”, dio kideak. Baratzaz gain, herriko lehorreko lur komunal batean txitxirioak eta babarrunak ekoizten ditu, eta baita espelta, garia eta animalientzako bazka ere. Guztia eredu agroekologikoan baina zigilurik gabe, horren beharrik ere ez duelako. “Banaketak medio, zuzeneko harremana dugu jendearekin, eta hemen bisitak eta auzolanak ere antolatzen ditugu, nahi duena etor daiteke”, gehitu du. ●



PUNK ARRASTOAK III

Anarkiatik *rave*-etara

1960ko hamarkadaren amaieratik nonahi aurki daitezke punk kulturaren aztarnak. Hiru artikuluko serie hau bukatzeko, agerpen horietako batzuei buruz ariko gara: AEBetako zenbait talde iraultzaile, Malcolm McLaren, Sex Pistols eta eztandaen ondorengo hamarkadetan punk espirituari eutsi zioten beste zenbait korronte.

 IÑIGO BASAGUREN-DUARTE

Aurreko atalean azaldu bezala, 1968ko maiatzaren inguruan sortutako mugimendua ez zen urrunegi joan eta amets hippya ere laster bilakatu zen amesgaizto. Eskubide zibilen defentsan eta Vietnamgo gudaren aurka aritu ziren askok beste bide batzuk esploratzea erabaki zuten, mugimenduak hartu zuen norabidearekin bat ez zetozelako: borroka armatua. AEBetan Students for a Democratic Society taldean ibilitako gazte batzuek WUO –Weather Underground Organization edo Weathermen– taldea osatu zuten eta herrialdeko hainbat punturi bonbekin eraso egin zioten “Ekar dezagun guda etxera” lelopean. Afroamerikar komunitatean Malcolm X-ren eta Ho Chi Minh-en irakaspenak oinarritzat hartu zituen Black Panther Party autodefentsarako taldea sortu zen, afroamerikar ghettoetan beraien komunitatea armekin defendatzeko prest zegoena. European, Parisko maiatzeko esperientziaren irakaspenekin eta situazionismoa oinarri hartuta, hainbat talde politiko erradikal sortu ziren, indarkeria lanabes zutenak. Zeresan handiena eman

zuen, lortutako indarragatik, Italiako mugimendu autonomoa izan zen. Baina baziren beste talde txikiago batzuk, adibidez Ingalaterran, Angry Brigade edo King Mob kasu. Lehenengok bonba eraso ugari egin zituzten eta espetakuluaren gizarteari kritika zorrotza egiten zion hainbat manifestu argitaratu zuten: “Merkataritza-gunean eseri zara, begirada urruna duzu, hutsa, aspertua, zaporerik gabeko kafe bat edango duzu? Edo kafetegiarri su emango diozu?”. Bigarren taldeak berriz, museoei eta artearen munduari gerra deklaratu zien. Talde horrek eragin handia izan zuen punkaren ezandan eta kodeen sorreran berebiziko garrantzia izango zuen gazte batengan: Malcolm McLaren.

ATERA DEZAGUN DIRUA KAOSETIK

Malcolm McLarenek arte eskola ugari-tan ikasi zuen eta politikoki oso aktiboa bilakatu zen urte horietan. 1966an AEBetako bandera bati su eman zion herrialde horren Londresko enbaxadaren aurrean eta horregatik atxilotu zuten. Garai hartan bilakaera politikoak anti-

belizismotik situazionismora eraman zuen eta mugimendu horretako zenbait kiderekin harremanetan egon zen, baita Parisera bidaiatu ere 1968ko udaberrian gertatutako matxinadan parte hartzeko. Ingalaterrara bueltan, King Mob talde situazionistaren inguruan mugitu zen.

1970eko hamarkadaren hasieran bere bikotea zen Vivian Westwood-ekin batera Let it Rock izeneko denda ireki zuen Londresen. Han diskoak eta beraiek moldatutako bigarren eskuko arropa saltzen zuten. Dendak izendapen bat baino gehiago izan zuen. Ezagunena, SEX. McLarenen arteak, Warholenak bezala, izaera komertzial handia zuen, baina jarrera probokatzailerekin. Han saltzen zuten arropa garairako guztiz abangoardista zen eta punk mugimenduen estetikan berebiziko garrantzia izan zuen, artea, probokazioa eta aldarri politikoak nahasten zituelako. Horren adibide dugu *Only anarchists are pretty* –“Soilik anarkistak dira ederrak”– leloa zeraman alkandora, agian McLarenek eta Westwoodek egin zuten arroparik ezagunena.

Modatik musika mundura salto egin zuen McLarenek 1975ean New York Dolls taldearen manager bihurtu zenean. AEBak zeharkatu zituen bira baterako latexezko arropa gorri deigarritz jantzi zituen taldekideak eta agertokian ohikoa zen igitaia eta mailuaren ikur komunista ikustea. McLarenek uste zuen probokazioari esker arrakasta lortuko zuela, baina bira desastre hutsa izan zen eta handik gutxira taldea desegin zen. Taldekideek gogor jo zuten McLarenen aurka eta honek Ingalaterrara itzultzea erabaki zuen.

Musika munduan izan zuen ibilbideak artea eta ikuspuntu komertziala uztartzen zituen, probokazio eta transgresio dosi handiekin. Espontaneo eta planifikatua zen aldi berean. SEX dendako

langile bat eta beste hiru bezero elkartu zituen Sex Pistols taldea sortzeko. McLarenek eta Westwoodek jantzi zituzten eta ideologikoki ere eragina izan zuten haiengan. Beraien produktua ziren, beraien artelana. Horren ondorio da *Anarchy in the U.K.*, zeresan handia eman zuen taldearen lehen abestia. EMI diskoetxe handiarekin sinatzea lortu zuten. Bidea argi ikusi zuen McLarenek eta horretan jarraitu zuen taldeak iraun zuen epe laburrean. 1976ko abenduaren 1ean Sex Pistols telebistan agertu zen. Taldekideak mozkortuta zeuden eta gaizki-esaka ibili ziren, baita aurkezlea iraintzen ere. Hurrengo egunean *Daily Mirror* egunkariak albistea azalera eraman zuen hurrengo izenburuarekin: "Lizunkeria eta amorrua. Nortzuk dira

punk hauek?". Eskandalua fenomeno bilakatu zen, eta horixe jotzen dute askok punk mugimenduaren jaiotza ofizialtzat. *God Save the Queen* ereserkia moldatu zuen taldeak eta Virgin diskoetxearekin argitaratu zuen. Hitzak zirela-eta abestia zenbait lekutan debekatu zuten. Debekuei aurre egiteko, eta lortzen ari ziren ospeak harrotuta, Elizabeth IIaren jubileuan jo zuten Tamesis ibaian, itsasontzi baten gainean eta Parlamentuaren aurrean. McLaren atxilotu egin zuten eta bilatzen zuena lortu zuen: eskandalua eta egunkarietan agertzea, berriro ere. 1977an *Never Mind the Bollocks, Here's the Sex Pistols* lehen lan luzea kaleratu zuen taldeak, eta hurrengo urtean AEBetan bira egin zuten. Urtarrilaren 14an, San Frantziskon, taldeak bere az-

AMORRU EGUNAK

Weather Underground
Organization taldeak antolatuta,
manifestazio bortitzak izan ziren
Chicagon (AEB) 1969an.

DAVID FENTON



ken kontzertua eman zuen. McLarenekin nazkatuta zeuden, diruarekin iruzur egin zielako eta bere panpinak bezala erabiltzen zituelako. Horrela zen, nola-bait. Warholentzat bezala, McLarenentzat artea dirua lortzeko modu bat zen eta punk mugimenduaren izaera transgresorea azkar merkantilizatzea lortu zuen. Gaztediaren artean *mainstream*-gia bilakatu zen eta bere buruaren parodia bilakatzeko bidea hartu zuen.

PUNKETIK LORATUTAKO ARTEA

Baina punka ez zuen Sex Pistols taldeak sortu, are gutxiago Malcolm McLarenek. Azken hau aurretik sortutako tradizio artistiko eta politikoetan oinarritu zen bere produktua sortzeko. Baina bai musikalki, bai estilistikoki, bazen zerbait aspaldi lur azpian zegoena, norbaitek fokua jartzeko zain. Azpikultura horren kodeak existitzen ziren. Estetikoki zatarrak zen, munstrokeria bilatzen zuen arropa apurtu eta deigarriekin, munduaren ustezko edertasunari kontrajartzeko. Jarrerari dagokionez, arte garaikidean beti egon da probokaziorako eta hausturarako joera hori, batzuetan ezkutuan, besteetan agerian. Musikalki ere baziren taldeak punka egiten zutenak punka jaio baino lehen: The Stooges, MC5, New York Dolls, Ramones eta abar. Haiek ezarri zituzten oinarriak punkak eztanda egin zezan.

Hiru ataletako erreportaje-sorta ho-

netan ikusi bezala, punk kulturaren arte garaikidearen aztarna asko dago, tradizio baten jarraipena delako, eta ildo horri jarraituz, beste arte adierazpen batzuk ere sortu ziren. Diskoen azalak eta taldeen logoak diseinatzeko orduan, artista askok parte hartu zuten. Hor dugu adibidez, Crass edo Dead Kennedys bezalako taldeek egin zuten lana, dadasmotik zuzenean edaten zuena. Punka bizkortu eta hardcorea jaio zenean, arteak garrantzi handia izaten jarraitu zuen taldeen estilismoan. Black Flag talde mitikoaren ibilbidea ezin daiteke ulertu Raymond Pettibon artistaren lana kontuan hartu gabe. Pettibon taldeko gitarra-jole Gregg Ginn-en anaia zen. Taldearen logo bikaina ez ezik, disko, *flyer*, pegatina eta kontzertuen afixa gehien egilea ere bada. Gaur egun Pettibonek artearen munduan jarraitzen du.

PUNKA, ETEN EZ DEN HARIA

Iragan mendeko 70eko hamarkada gatazkatsua bukatzeaz zela, espektakulua- ren gizartea arrakalatu zuten erresistentzia mugimenduen hil-arnasestuei beste olatu bat gehitu zitzairen: atzeraldi ekonomikoaren ondorioak. Ongizate estatuak jarritako sarean urradurak agertu eta milioika langilek desindustrializazioaren zakartasuna pairatu behar izan zuten. Oparoaldi ekonomikoaren olatuak itsasertzean jo zuen eta xirin-

gak langabezia sariekin nahastu ziren. Kolpetik berreskuratzeko aukerarik gabe etorri zen ajea: mundua garai ilunetara kondenatu behar zuen erreakzio kontserbadorea, Reagan, Thatcher eta Wojtylak osatutako hiruhortzekoan pertsonifikatuta. Erreakzio horri beste bat etorri zitzaion kontra: punka hiltzearekin bat, bide berriak ireki ziren sutan zeuden barrikaden argitan, odolustutako hilotzaren gainean. Norabide batean joan zirenek musika bizkortu eta hardcorea sortu zuten, askotan mezu politiko gordinarekin lagunduta zetorrena. Beste batzuek, ordea, malenkoniaren zuloan sartu eta erritmo ilunen laguntzarekin mamuekin hasi ziren dantzan post-punk bezala ezagutu zen mugimenduan. Baina bazeuden bide-bazterretatik mugitu zirenak ere, argietatik urrun.

Aro aldaketaren erritoaren erdian, 1979ko neguko solstizioan, Throbbing Gristle talde britainiarrak *20 Jazz Funk Greats* diskoa argitaratu zuen, haien lanik ezagunena eta ederrena. Musika industrialaren lan-seminala, onfalo bat zeinaren inguruan musika genero horren kontakizuna idatzi den. Abestiak gordinak, enigmatikoak, mantra itxurakoak eta oldarkorrek dira. Azaleko irudiak barruan aurkituko dugunarekin tal- ka egiten du. Bertan, taldeko lau kideek 60ko hamarkadako pop estiloko arropa daramate soinean, Genesis P-Orridge-k izan ezik. Argazkia Beachy Head inguruan kokatuta dago, Ingalaterrako hegoaldean, izugarri ederra den labar-eremuan. Uharteko hegoaldeko suiziden artean leku kutunetakoa. Leku eder bat hartutako erabakiarekin kontsekuente izateko. Horregatik, urte batzuen buruan disko hori berrargitaratu zenean azal klasikoari elementu bat gehitu zitzaion, paraje horretan arrotza ez den hilotz bat. Taldearen diskoak Industrial Records zigilupean argitaratzen zituzten, haiek kontrolatzen zuten diskoetxea. Bai izenak, bai logoak, bai diskoetako azalek futurismoari egiten zioten erreferentzia. Taldea desegitean, Genesisek Psychic TV sortu zuen, musikalki beste koordinatu batzuetan kokatzen zen proiektua. Baina izaera transgresorea ez zuen albo batera utzi eta musikarekin eta bideoarekin esperimendu zuten. William Burroughs eta Charles Manson aipatu zituen bere eragin nagusi bezala. Genesisek bere gorputza guda zelai bihurtu zuen *pandroginia* izendatu zuen trantsizio prozesuari ekin zionean: Bere bikotekidea zen Lady Jane-rekin batera

PROBOKAZIOA ETA NEGOZIOA

Sex Pistols taldearen historia laburrean bidez kontatzen da punkaren jaiotza. Baina punkak tradizio artistiko eta politiko luzea izan zuen aurretik. Baita ondoren ere.



GENESIS P-ORRIDGE

Throbbing Gristle eta
Psychic TV taldeetako
liderrak musika
industrialaren oinarriak
jarri zituen.



bien gorputzak moldatu nahi zituzten, gorputz ez-binario bakarra bihurtzeko.

Musika elektronikoaren lehen garaietako beste pertsonaia garrantzitsua bat Conrad Schnitzler dugu. 60ko hamarkadaren bukaeran hasi zen musika mota horrekin esperimentatzen. Arte ikasketak egin zituen eta eskulturarekin lanean jardun zuen, baina bere biderik emankorrena eta interesgarriena musika munduan egin zuen. 70eko hamarkadan zenbait proiektutan parte hartu zuen, Kluster-en eta Tangerine Dream-en kasu. Bakarka ere ibili zen eta hor izan zuen bere ekoizpen esperimentalena. Performanceak ere egin zituen. Stuttgarteko kaleetatik ibiltzen zen buruan bozgorailu bat itsatsia zuen kasko batekin. Bozgorailu horretatik bere lanik zaratatsu eta ilunenak entzun zitezkeen hiriko biztanleen harridurarako. 1978an *Con* diskoa kaleratu zuen, bere ibilbidean mugarrria. Alemaniarraren obra emankorrek eragin handia izan zuen gerora garatu zen musika elektronikoan, baina ez alor horretan bakarrik.

1970eko hamarkadaren amaierako eztandak norabide ugaritan barreiatu zuen punk kultura

Black metal estiloko Mayhem taldearen *Deathcrush* (Posercorpse Music, 1987) lan mitikoaren *intro*-a ere egin zuen.

Musika elektronikoa geroz eta garrantzitsuagoa bilakatu zen eta kontrakulturaren parte izan zen. Kontserbadurismoa nahasteko, gazteak lur azpian ezkutatzeko prest. Horrela sortu zen 80ko hamarkadan musika elektronikoarekin lotura zuen *rave* mugimendua. Jai horietan parte hartzen zutenek azpiko mundu horrekin egiten zuten bat. Ez

soilik jaiak leku ilun eta ezkutueta egingen zirelako, baizik eta nork bere egoa baztertu eta komunitate kaotiko baten partaide bilakatzen zelako. Alizia mundu miresgarrian bezala, helburu hori lortzeko mota guztietako substantziak hartzen zituzten. *Rave*-etako partaideak bezala, Aliziak inolako muga mentalik gabe bidaiatu zuen, untxi-zuloan galdu eta irakaspen oro jasotzeko prest. Eguna argitzean, Aliziak eta *rave*-etako partaideek beren ni-a berreraikitzen zuten. Beste pertsona bat ziren zulotik irtetean.

Rave kulturaren ametsa ere amesgaizto bihurtu zen, besteak beste drogen erabilpen masiboaren eta debekuen ondorioz, baita *underground*-etik *mainstream*-era igaro zirelako. Beste mugimendu artistiko askori ere gertatu zitzaizen lehenago. Baina ikusi bezala, hori gertatzen denean ere, sutea ez da guztiz itzaltzen eta norbait lekukoa hartzeko zain geratzen da, beste mugimendu berri bati ekiteko, sua eskuan abangoardia kulturalaren eta politikoaren bidea argitzeko. ●

(Besteen)

Etxeko leihotik begira

Sartzen zara areto handi batean eta badira: besaulkiak, beltzez jantzitako pertsonak sarrerak eskatzen, linternak, urrutian aurkezle bat mikroa eskutan, aspaldiko lagunak pelikula aurretik urtebeteko bizipenak bi minututan laburtu nahian. Argiak itzaltzen dira eta ilunpean, pizten da mundu bat. Baina zuk baduzu jada zure mundua.

 AINHOA GUTIÉRREZ DEL POZO

Kontua da batzuetan nahastu egiten direla bi mundu horiek, eta are, biak nahas daitezzen garrantzitsua dela. Ezin du berdin ikusi do luaren inguruko filma dolu prozesuan dagoenak, ezta amatasunari buruzko pelikula ama izan berri denak –zinemara joateko astirik badu, eta lokartzen ez bada–, edo *Los lunes al sol* (León de Aranoa, 2002) langabezia dagoenak. Bakoitzak begiratzeko duen kristala, zein koloretakoa den. Punto de Vista jaialdian etxe edo bizi ereduen gaiak atentzioa deitu dit, eta tira, oihartzun horietatik tiraka idatzi dut artikulu hau.

Azora funts putreak bultzatuta etxetik kaleratu zituzten orain gutxi Rosa Mari Arratibel eta Iñaki Setién Donostian. Jaialdiaren erdian gertatu zen, inaugurazio ostean eta klausura baino lehen. Horrek badu bere garrantzia, ikusita zein film ematen ari ziren bertan. Ione Atenearen *Los caballos mueren al amanecer* (2022), Pawel Łozińskiren *Film balkonowy* (2021) eta Irati Gorostidi eta Mirari Echávarriren *San Simón 62* (2021) lotzen dituen zehar-lerroa da etxebizitzarena eta bizimoduarena.

Atenearen filma artxibo eta formatu ugariz eraikitako lana da. Horietako asko, bereak; beste asko, okupatu zuen etxeko jabe ohienak. Aurretik beste norbaitena izan den etxean sartzen zare-

nean, presentzien talka dago. Harreman horren topaketan zentratu du iruindarrak obra, Bartzelonako etxe hartan inoiz baino gehiago sumatu baitzuen lehengo biztanleen bizia.

Zuzendaria duela bost urte inguru heldu zen etxe horretara, eta gauzak gainezka zegoen. Hala kontatzen du filma irekitzen duen *off*-eko ahotsak. Lehen egunetan lagunak gerturatu zitzaizkion etxea txukuntzera. Toki guztietan zeuden aurretik bertan bizi izan ziren hiru anai-arreben arrastoak, argazkiak, irratigrabaketak, arropak, artelanak. Antonio, Rosita eta Juanitok oinordekorik gabeko herentzia zabala utzi zuten, eta Ateneak helburu bezala hartu zuen mila piezako puzzleari forma bilatzea. Urte batzuk geroago, film honen bitartez kontatzen dira aurrekoen istorio posibleak, eta jaso dutenarekin oraingoek duten harremana.

Material guztien nahasketak puzzlearen piezak erakusten ditu. Horrela, lineala ez den hari batetik tira eginez aurkezten dizkigu zuzendariak anai-arreba bakoitza, bere burua, toki horrekin gertatzen zaiena, eta gertuko dituzten pertsonen erreakzioak etxe horretan. Mamuek eragin dezaketen irudi morboosoetatik urrun, kontzeptualagoak diren loturak osatzen dira: Rositarena zen pianoaren afinazioa, Antonioren narrazio baten izena daraman filma, edo

Juanitok zuen sortzeko gogoaren oinordetza. Etxeko biztanle berriek zaharrek bizitzeko modua aurkitzen dutenean osatuko da pelikula. Bien bitartean, bi garairen erretratua ere baden lana iradokitzen da: frankismo garaiaerakiko erresistentziak eta egungo disidentziak. Gozatzeko filma.

Sail Ofizialean proiektatu zen Pawel Łozińskiren lana. *Film balkonowy* Varsovian egindako pelikula da, zuzendariak etxeko balkoitik filmatzen duena. Behean, kalean, era guztietako jendeak egiten du bizia: batzuk lasai dabilta, beste batzuk presaka, eta beste batzuk helburu jakinik gabe egoten dira. Paseoan seme-alabekin, laneko hitzordura berandu, etxeko bideaz nekatuta edo maskota ateratzen. Bizi-une desberdinetan daude denak, eta nahi, helburu eta xede desberdinak dituzte. Izatearen inguruan, nork badu bere hausnarketa. Zuzendariak bi urte luzez balkoian egindako egonaldia istorio horien bilaketa da, bakoitzak bizitzeko aurkitutako edo galdutako motiboarena.

Kamera, beraz, balkoitik behera begira duela, jendea pasatzen da behetik. Hasieran, zuzendariak dei egiten die, galderak egiten dizkie, eta elkarrekin duten *a priorizko* harremana agerian gelditzen da. Denbora pasa ahala, orde, harreman horiek garatu egingo dira, eta batzuk sakondu ere bai. Ustekabe-



LOS CABALLOS MUEREN AL AMANECER

lone Ateneak okupatu zuen etxe baten
aurreko biztanleen istorioa berreraiki du,
aurkitutako materialekin lan eginez.

ko erantzunak, adierazpen intimoak, hutsalkeriak eta gogoeta filosofikoak entzungo ditugu, baita irain larriren bat ere; eta pertsona batzuek filmean sartu-irtena egiten duten arren, beste batzuk nolabait ezagutzera ere iristen gara. Miguel Zozayak esan bezala, "leku batetik mugitu gabe, hurkoa kameraren bidez ezagutzearen aldeko apustua egin du *Film balkonowy*-k, kamerari berari esker nolabait ere, agerian utziz zinemak bestearengana hurbiltzeko duen ahalmena".

Azkenik, iazko X Filmak programan hautatua izan zen Irati Gorostidik, eta haren zuzendarikide izan den Mirari Echávarrik, *San Simón 62* filma aurkeztu zuten. Jaialdia izan da ekoizle urtebeteko epean garatu den proiektuan, eta 1980ko hamarkadan Lizason sortutako Arco Iris komunitatea du objektu. Artista bien amak handik pasatakoak izateak gidatzen ditu zuzendariak beren bilake-

tan, eta horrela erlazionatzen dira tokiarekin, baita han bizitako pertsonekin ere. Euren amen oroimenez eginiko lana dela argitzen dute hasieran, eta horrek kokatzen ditu haiek filmean, baita gu ere beronen aurrean.

16 milimetrotan filmatutako obra da *San Simón 62*. Gorostidik eta Echávarrik elkar filmatzen dute tokira iristean, komunitatearen artxiboak ikertzean, edo gutunak irakurtzean. Horretaz gain, herriko jendeari, eta komuna horretan bizitako batzuei galderak egiten dizkiete, elkarrizketa sortu. Pixkanaka, leiho bat irekitzen dute, gaur egundik, atzera begiratzeko. Komunitatearen arrasto


gutxi dago herrian, agerian behintzat. Aretora joandako jende andana, ordea, beste zerbaiten adierazle da; asko eta asko Arco Irisetik pasatakoak ziren. Zuzendariak modu oso finean lortzen dute komunitatearen historia kontatu beharrean, haientzako garrantzitsuak diren gatazka jakin batzuk adierazten, baita hipotesiak iradokitzen ere. Filmikoan filmatzeak zailtasun adina estetika ekartzen dio pelikulari, forma bera determinatuz askotan. Zuzendariak sentitzen dutena eta hango biztanleek duten oroitzapena miresmenaren eta arbuioaren artean kokatzen da, ikuspuntu oso interesgarrian.

Uste dut film baten lorpen handiena ikuspuntuaren eragitean datzala; zerbaiti begiratzeko beste zerbait desberdina ikustean, edo gauza gehiago ikusteko gogoa piztean. Hiru film hauek badute hori. Ikuskera berri horiekin zer egiten duen, ikuslearen gain dago. ●



LIBURUA

Kontatu ipuin bat...



ELMER ETA LOTARAKO IPUINA

DAVID MCKEE

EREIN-IGELA, 2021

XABIER ETXANIZ ERLE

David McKeek 1969an idatzi zuen, Paul Klee margolari suitzarraren eraginez, *Elmer* koloretako elefantearen istorioa. Liburu hark ezberdinen arteko harremana eta errespetua errebindikatzen zuen. Elmer ez da beste elefanteak bezalakoa, eta hori Elmer protagonista izan den liburuetan ikusi ahal izan dugu. Euskaraz zortzi liburu argitaratu dira Elmer bilduma barnean, azkena *Elmer eta lotarako ipuina*, iazko azaroan. Eta horixe dugu egilea hil aurretik argitaratu den azkenekoa euskaraz. Izan ere David McKee joan den apirilaren 6an zendu zen gure artean ia-ia inolako oihartzunik izan gabe –nahiz eta hainbat liburu, arestikoez gain *Orain ez*, *Beñat* zoragarria esaterako, argitaratuak izan euskaraz–.

Aurreko liburuetakoen antzera, album honen argumentua oso sinplea da: “Elmer, koloretako elefantea, arratsaldeko ibilalditxo egitekotan zela, bi elefante kume agertu ziren, beren amarekin.


–Kaixo, Elmer –esan zuen amak–. Zainduko dituzu Stella eta Mel, mesedez? Ahizpa ikustera joan behar dut”.

Eta Elmerrek Stella eta Mel zaintzeaz gain lokartu beharko ditu; Elmerrek, orduan, paseo bat ematea erabakitzen du, ibilaldi nekagarri baten ondoren berehala lokartuko direlakoan; paseoan zehar, berriz, basoko hainbat animaliarekin topo egiten dute eta hauek behin eta berriro lelo bera esaten diote Elmerri: “Kontatu ipuin bat, eta ziplo lokartuko dira”. Eta animalia bakoitzaren kumeren batek bere gogoko ipuina aipa-

tuko du: “Galleta magikoari buruzkoa”; “Itzala galdu duen munstroari buruzkoa”, “Oihartzunari buruzkoa”... azkenean lotarako ipuina kontatzea tokatzen denean Stella eta Mel bakarrik ez, Elmer bera ere lo ziplo geratuko da.

McKeeren ohiko kolore pastekek alaitasun eta ikusgarritasun berezia ematen diote kontakizunari, animalien trazu sinpleak dira, arkatzen bidez eginak, eta kolore bizi eta alaiak bista alaitzen dute Elmerren ateraldi eta istorio guztietan bezala.

Istorio polita, berriro ere koloretako elefantearena, sinplea eta alai; eskuza-baltasuna, lagun arteko giroa edo norberak bere ideiak aurrera eramatearen garrantziaz ari dena; hori bai, beti umore ukitu batekin. ●



MUSIKA

Beleari barre



POST MORTEM

LA FURIA

BAGA-BIGA, 2022

IKER BARANDIARAN

La Furia (Nerea Lorón) ez da ohiko sortzailea, eta parean izan dituen bide malkartsuenak –bereak, propioak– hartu ditu beti. Izan ere, emakumea izateaz gain, nafarra ere bada. Gizonek agertokiak edozein moduz bere egiten ikusita, amorruz, konbizio osoz eta duintasuna helburu, pausoa eman zuen bakar-bakarrik beraren eta beste batzuen duintasuna eta lekua berreskuratzeagatik.

2013an kaleratu zuen lehen diskoa, *No hay clemencia* izenekoa, basamortu baten erdian baina harriei ere hagin-ka eginez; astindua eman zuen eta, are gehiago, diskurtso gaurkotuari bere iraganeko eta jatorriko, erraietako, musika jantziak gehitu zizkion, eskema ugari apurtu eta diskurtso feministari

transbertsalitate handiagoa –behar duena– emanez. 2017an *Vendaval*-ek jarri gintuen zaplazteko batez airean: mezu landuagoak eta zorrotzak erabat. Munduko emakumeak batzeko ahalegin –eta baita lorpen– kamikazea. *Pecadora*-k ekarri zuen berriro musikaltasun –hitza- ren esanahi bikoitzean– askotarikoagoa eta bolbora usaina zabaldu zuen giroan.

Orain, sortzaileentzat zein beste guztiontzat itogarria izan den garai ilun honen ostean, *Post mortem* dakarkigu magalean: bizipenek zauritu ostean berriro zutik jarri den La Furia amorratuago ez, baina jakintsuagoa. Hala ere, adi!, armek kargatuta dira eta rapak gori-gorian.

Estrellitas en el cielo de mi cama flamenkotik gogoz edaten duen mendeku gozagarria da, esperotakoa. *De oro del*

bueno latino eta melodikoa da erabat, autotunearekin reggaeton abestuta. *Que se muera la pena* dub, tempo lasaiko rapa eta hastapenetako technoaren arteko negar-kanta lotsagabea. *Solo un cuervo* kantutzarra da, 713avo Amor-en pareko sentimenduz abestutako drum&bass sehaska-kanta itzela. *Eh* da kaleko oihu askotariko, inkusibo eta eztandagarriena batzen duen electro-swing pieza zoragarria. *Amaia* erraietara bidaiatzea errazten duen erromeri-rapa. *La petite muerte* probokazioaren eta gozamenaren arteko ezkontza. *Vuelta* electro-happy-aren itzuler. *Ladrado* lepura zuzenean doan rap eskolako adibide zuzen eta iluna. Eta, bukatzeko, bizitzari buelta eta buelta ematen dion *Ama* deiadarra. ●



E, peña: animo, e

XALBA RAMIREZ UNAI BELLAMY

FORMOL LABORATEGIAREN 'ALBUM'

NOIZ: Apirilak 28

NON: Biteri aretoa (Hernani)

Zer gara gu, nor gara gu, euskaldunak gara gu? Euskal gazteriaren identitate eta krisien korapiloak oholtza gainean okaztatu ditu Formol laborategiak, euskal teatroan, itxuraz, azkura eraginez. Ez delako teatro obra dramatiko eta poetiko bat. Zintzotasun eta biluzte ariketa bat delako. Eta Mikel Ibarguren eta Intza Alkain jenialen barrenak ikustean, elkarrekin topo egiten dugulako. Guk bai, behintzat.

Umore absurdoaren belaunaldia izan gara. Baina gure manifestuetan hizkuntza poetiko jaso entseatu nahi izan dugu: alta, arestian aipatu bezala, eta bla eta bla. Akkuratuak esan bezala: *Fuck hunkigarrismoa*. Noiz utziko diogu gure buruei nahi duguna egiten?

Zeren subjektu neoliberalaren zama dugu bizkarrean: "Izan zaitez zu zeu". Baina zertarako gu geu? Gugandik espero duguna izateko? Gu geu izan zuk zeuk ni neu onartzeko? Eta zuk ni onartzeko maitatu behar dut nire burua? Zer

espero duzue niregandik? Subjektu neoliberalak erantzun ezin dituen galderak, depresioaren, antsietatearen eta buru gaixotasunaren zamarekin, etengabe jakinarazpen, zarata eta disoziazioen etenarekin. [Eta gizonaren inteligentzia emozional ezak ez du laguntzen: "Intza, orduan zein da problema?"].

Motxila da berdintzen gaituena: "DBH, 18 urterekin aske izango zarenean ideia hain fuerte sentitzea. Motxila da gizon kuadrilletan besarkadak ematea bakarrik zerbait larria gertatu denean -motxila dira gizonak-, motxila da inoiz norbait bortxatu duzun ala ez ez jakitea".

Motxila da, azken finean, gauza partekatu bat. Gure haurtzaroa, nerabezaroa, gaztetasuna eta heldutasuna lotzen dituzten bizipenen hari singlean koherentziarik ez topatzea. Gurasoei parrandan ateratzeko baimena eskatzen genien bitartean beste norbaitekin lehen esperientzia sexual trakets eta

traumatikoak izatea, drogak probatzea eta kale borrokan aritzea. Edo, hain zuzen, ez aritzea.

Motxila delako, nolabait, Euskal Herrian identitate politiko eta kulturala sortzeko, aurretik datozen borroka eta irakaspenen ondarea hartu eta bere hondarretan ito izana. Gure *boomer* alaienean bakarrik topatzen dugu zintzotasuna: "Hemen okerreko belaunaldikook, ezertan asmatu ez dugunok, norbera bere lotsaz ardura dadila, gu geureaz arduratzen garen bezala".

Gure belaunaldiak asma ditzala munduan egoteko manera berriak, askatasunak praktikan jartzeko. Aurreko belaunaldietakoak euren akatsak onartu eta umiltasunez hurbiltzen badira, askoz hobe. Eta jarraitzen badu "gure garaian" kantinelak, egin dezagun haie-taz barre. A, noski, eta gure buruaz barre. Zeren hau guztia bagenekien, baina elkarrekin onartzea besterik ez zitzailgun falta. ●



Hitz gezidunak

TRISTE, KOPETILUN HAUTES-KUNDEETAN EMATEN DA		HERRI KIROLA TALIOAREN IKURRA		ENE! O!		... ETA ZAZT IGORRI		AZAL ILEARI EUSTEKO XINGOLA		GARRAIO PUBLIKOEN IBILBIDEAK LERDE LIKATSUA	
ATERA, IRTEN TELEBISTA						HEGAZTIEN GOROTZ HEGAZTI MOTA					
		AUTONOMI ELKARTEA PERTSO- NAIAREN IZENA			TOKI HORRETAN TRANKIL, BARE	GAUZAK ERAMATEKO ONTZI EMAKUME IZENA					
LORE ORRATZAK ERABAT BUSTITA								ZALANTZA BERANDUTU			
				NAFARROAKO HERRIA AZPIKOZ GORA JARRI					IKUSI (LA- BURDURA) ONTZIA MUGITZEKO HAGA		
GORATZERA BEHARTU	KOLORE GOIBEL NAFARROA BEHEREKO MENDIA					PERTSO- NAIAREN ABIZENA NORI					INTSEKTU MOTA (PLURALEAN)
								ZABAL (IPA- RRALDEAN) ZOKO			
LETRA IZENA Postu				NAFARROAKO HERRIA FUTBOLEAN, TANTO					NORAT ATZIZKIA ZEREZKO ATZIZKIA		
					LEIA, HORMA IDI HITZ- ELKARKETAN					BOKAL PUNTUDUNA 51 ERRO- MATAR ZENBAKIZ	
MUSIKA TRESNA NEOLITOARI DAGOKIONA						GOIALDEA, GAILURRA KILOA					
								ONGI			

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

8								
		3			9		4	
7				8			6	
1	2		8		6	4		
9	3		1		4		2	
4		6			5	7	1	9
3	6	8		1		5	9	
5				6		1		2
			5	4			3	7

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

1. Beldurti.
2. Jaka lodi.
3. Apala, xumea.
4. Samoako moneta (pl).
5. Landare mota.

EBAZPENAK

1. IZUTU
2. ZAMAR
3. UMILA
4. TALAK
5. IRAKA

2	9	1	5	4	8	6	3	7
5	7	4	6	3	8	1	8	2
3	6	8	2	1	7	5	9	4
4	8	6	3	2	5	7	1	9
6	9	3	5	1	7	4	8	2
1	2	7	8	9	6	4	5	3
7	5	7	8	2	3	6	1	
6	1	3	7	5	9	2	4	8
8	4	2	6	3	1	9	7	5

K	I	N	O	O	K	I	T	I	T	O	E	O	N
A	K	U	K	U	K	I	I	T	O	B	I	B	
I	A	Z	A	T	O	Z	U	G	R	A	V	K	
T	A	R	U	X	T	E	I	V		V	K		
O	G	O	A	T	I	Z	V	R	V	R	O	G	
N	A	V	M	A	N	S	I	R	G				
K	I	E	B	I	R	A	V		I	V	L	B	
A	D	U	D	U	K	A	O	L	I	T	S	E	
E	R	E	A	T	O	H		E	V		B	T	
N	I	R	I	Z				I	K	T	I		
I	L	I	B					V	O	T	O	B	
L	L	Z						S	G				

Raquel Orgillés

AMA BAKARRA HAUTUZ



FAMILIA EGITURAK KOLOKAN

"Hautzaro korapilatsua bizitu nuen. Bortz urte nituenean nire gurasoak banandu ziren eta ama bi alabekin gelditu zen bakarrik. Etxean arazo ekonomikoak ziren nagusi. Hiru urte geroago, gaur egun Noraren aitatxia eta nire aitaordea dena ezagutu zuen amak. Aldaketa anitzeko urteak etorri ziren: etxea, eskola, hiria... Sasoi gogorra izan zen niretzat, urte luzez *bullyinga* egin zidatelako. Amatasunak familia egitura osoa irabiatzen du, eta ama naizenetik lanean ari naiz patroiak ez errepikatzeko. Terapia ezinbertzekoa izan da bide horretan".

"Gure familia eredura egokitzen den lanpostu bat aurkitzea da nire erronka nagusia"

Raquel Orgillés (Bartzelona, 1983) guraso bakarra da hautuz. Bere alaba, Nora, 2019ko azaroan jaio zen, pandemiak eztanda egin baino hilabete gutxi lehenago. Urte anitzetan elikadurarekin lotutako negozio batean lan egin ondoren, langabezia dago orain. Batek baino gehiagok Instagrameko @blw_receptes profilagatik ezagutuko du.

 SAIOA BALEZTENA  SARA BLÁZQUEZ

Noiz eta nola erabaki zenuen ama bakarra izatea?

35 urte nituenean, ordura arte izan nuen harreman toxiko batekin bukatu nuen. Une hartan hausnarketa prozesua hasi nuen eta argi ikusi nuen ezin nuela denborarik galdu ama izan nahi banuen. Baina, era berean, ez nuen harremanetan pentsatu ere egin nahi... Beraz, guraso bakarra izatea erabaki nuen.

Erabaki zaila izan zen?

Bai, nire azken aukera zelako hori. Azken harremanetan aunitz borrokatu nuen, maitasuna idealizatuta nuen eta bikoterik gabe familia osatzeak sekulako pena ematen zidan... Betidanik amestu bainuen lotura irmoa zuen familia bat osatuko nuela. Baina tira, dolua pasa nuen eta orain uste dut erabakia ezin hobea izan zela.

Nola gelditu zinen haurdun?

Lehendabizi frogak egin nituen, intseminazioa edo *in vitro* ernalketa egin erabakitzeko. Tronpak buxatuak nituela ikusi zuten eta, beraz, obuluen erauzketa egin behar izan zidaten.

Hamasei atera zituzten, eta erdiak ernaldu ziren semen emaille baten bitartez. Horietatik hiruk biziraun zuten bakarrik. Zorionez, lehendabiziko transferentzia enbrionarioarekin, indartsu heldu zen bizitzara Nora.

Nola bizitu zenuen prozesu hura?

Gogorra izan zen. Haustura batetik atera berria nintzen eta nire pisua alokatu nien ikasle gazte batzuei, bikote ohiarekin lotura gehiegi zuelako niretzat. Bitartean, nire gurasoen duplexeko goiko pisuan bizitu nintzen. Han ez nengoen erabat gaizki, baina niretzako espazio baten beharra nuen, gertatzen ari zen guztia soseguz gainditzeko beharra nuen. Haurdun gelditu nintzenean, nire pisura itzuli nintzen eta horrekin batera berreskuratu nuen nire espazioa.

Bikoterik gabe ama izandako emakumeen erreferentziak faltan bota zenituen?

Seme-alabekin bakarrik aurrera egitea erabaki zuten emakumeak ezagutzen nituen, euren bikoteek haurren ardura hartu nahi izan ez

"Lagun batzuk galdu nituen horregatik, ikuspuntu desberdinak genituelako edo, bertzerik gabe, nire erabakia errespetatzen ez zutelako".



zutelako. Baina ez nuen inor ezagutzen hautuz familia gurasobakarra osatzen zuenik. Erreferenteak falta zitzaizkidan, bai, nahiz eta guraso bakarren munduan murgiltzen zarenean jende anitz ezagutzen duzun. Anitz baikara!

Bakarrik sentitu zinen?

Bai, orokorrean hagitz bakarrik. Ama sotsu ikaragarria izan zen niretzat, baldintzarik gabekoa. Klinikara laguntzen zidan beti. Lagunekin, aldiz, zailagoa izan zen. Ama bakarria izateko erabakia elkarbanatzen nuenean beren iritzia ematen zuten askatasun osoz... Lagun batzuk galdu nituen horregatik, ikuspuntu desberdinak genituelako edo, bertzerik gabe, nire erabakia errespetatzen ez zutelako.

Une hartan ez zenekiena zen erdiondoan zinela mundu mailako pandemia batek gure egunerokoa hankaz goiti jarriko zuela. Nola bizitu zenuen?

Zalantzarik gabe, nire bizitzako etapa-rik zailenatarikoa izan zen. Psikologikoki borrokatu behar izan nuen hondoa ez jotzeko. Laguntza psikiatrikoa behar izan nuen eta medikalizatu ninduten. Lau hi-

labeteko haur batekin nintzen bakarrik, haur eramailan neraman txikia egun osoan, eta ez nuen ordu bat baino gehiago lo egiten jarraian. Nekagarria izan zen. Eta horri gehitu zitzaizkion, noski, lan arazoak eta ekonomikoak. Eta birusak eragiten zuen egonezina, noski. Erdiondo arrotza izan zen...

Hain zuzen ere, sare sozialetan buru osasunaren arreta aldarrikatzen duzu. Zergatik?

Oinarrizkoa iruditzen zaidalako. Niri terapiak ikaragarri lagundu dit, duela bi urtetik hamabost egunetik behin egiten dut. Eta behar dut, bizirauteko. Ez naiz ileapaindegira joaten, ez dut arroparik erosten, baina osasun mentala zaintzen dut. Zoritzarrez, gure sistemak hori ere alde batera uzten du.

Egunerokotasunean baztertuta sentitzen zara guraso bakarra izateagatik?

Bai, une anitzetan, falta zaizkidalako bi gurasodun familia batek dituen abantaila logistikoak. Eta ez hori bakarrik, etxeko gastuak ere nik bakarrik ordaintzen ditut. Edo, nire ametsa da berriro

ere ama izatea, beiratuta ditudan bi enbrioiekin. Baina Espainiako Estatuak jaiotze-tasa txikia dela erraten duen arren, ez du baliabiderik jartzen ama izateko. Are guttiago bikoterik gabe. Eta inguruko jendeak berriz, ama izan nahi dudala erraten dudan bakoitzean, ezetz erraten dit, dagoeneko alaba bat dudala eta erotuta nagoela.

Familia gurasobakarren errealitatea bistaratzen duzu Instagramen.

Bai, konfinamenduan sortu nuen @blw_recipes profila eta ikaragarri gus-tatzen zait. Nire tribu birtuala da. Elkarri laguntzen diogu. Eta nire esperientzia elkarbanatu ahal izateagatik zorionekoa eta baliagarria sentitzen naiz. Pena da lan aukerarik ez dela ateratzen bertan.

Amaitu aurretik, zein da zure erronka etorkizunari begira?

Gure familia eredura egokitzen den lanpostu bat aurkitzea da nire erronka nagusia, eta posible den heinean, motibagarria eta gustukoa izatea. Eta ama izatea berriz. Edo saiatzea, behintzat. Egonkortasun minimo bat lortu eta zoriontsu izan nahi dut, bertzerik gabe. ●

Aireportuak diruditen hiriak eta hegan egiten duten beste gauza batzuk

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Turbulentzien erdian tekla jozteaz zer den jakin nahi nuen eta kazetari-bizimodu salbai honek horretarako aukera ere eman dit. Bilbo-Munich-Viena-Munich-Bilbo: aspaldi hainbeste hegazkin hartu gabe. Eta bat hartzen dudak bakoitzean, saihestu ezin ditudan pentsamenduen katalogoan agertzen zait istripuaren aukera. Baietz, oso garraibide segurua dela, estatistikak, probabilitateak, datuak, nahi duzuna; fantasia indartsuagoa da beti: kea botatzen hasten den hegazkin bat, bidaiariaren garrasiak, sutan desegiten den turbina, otoitz egiten hasten den hegazkineko pertsonala... Baina ez gaitzezen desbideratu. Gaur hegan egiten duten gauzei buruz hitz egiteko asmoa nuen –bukaeraraino geratzen bazarete, gogoratu honetaz–; eta hegazkinez ere bai; eta aireportuez; eta etxean bezala sentitzeaz; eta hiriei batzuetan darian izerdi kloniko batez.

Azkeneko horretatik hasiko gara, hemen gauzak atzekoz aurrera egiteko daukagun ohiturari jarraituz: jaisten zara abioitik, gurutzatzen duzu aireportu izeneko konstruktio hori, souvenirrek jariatzen dutenaz gain inolako bertakotasun-arrasto erakusteari uko egiten diona, eta pentsatzen duzu ahalik eta azkarren atera behar duzula hortik *benetako* gauzak ikusten hasteko. Baina hartzen duzu zentrora eramaten zaituen tren, arrastaka ateratzen duzu maleta lur azpiko geltoki itogarri batek kanpora, eta aurretik inoiz zapaldu ez duzun hiri-erdigune horrek gogora ekartzen dizu, prezisio ikaragarri gainera, etxe ondoan daukagun hiri. Edo beste edozein hiri. Zeren gaur egun hiri baten erdigunean paseatzea aireportu baten barruan ibiltzearen antzeko esperientzia bihurtu da: denda berdinak, iragarki berdinak, turista berdinak, bizi diren lekutik mugitu gabe berdin-ber-



din praktikatu ahalko lituzketen kontsumoetan murgilduta.

Kontuak badu beste aldea ere: denok antzeko lekuetan bizita, leku horietan sortzen diren problemak ere antzekoak bilakatzen dira; eta antzaren antzaz, problema horiei aurre egiteko antolatzen direnek erraz samar ulertzen dute elkar, bakoitza Europako punta batetik datorren arren –eta *Lost in Translation* momentu batzuen despit–. Batek aipatzen du Austrian eraikitzen ari diren autobide berrien aurkako mugimendua eta zu hasten zara pentsatzen Zubietako erraustegiaren eta AHTren aurkakoez. Eztabaidak ere antzeko puntuetan kateatzen direla ematen du, tonu gorrien, moreen, berdeen eta ortzadar kolorekoen artean, hor nonbait. Eta azkeneko bi urteen ondoren, badirudi mamu bat dabilela European barrena,

komunismoaren itxura baino *impasse* sozialarena daukana.

Ejem. Nahiko behera jaitsi da hegazkin hau azken paragrafo horretan, zerbait egin behar da artikulua bukatu baino lehen altuera berreskuratzeko. Materiala ez da *a priori* oso aproposa, dena esan behar bada: hedabideen jabetzari buruzko konferentzia akademiko bat Vianan, handik etxera itzultzeko hegaldian ari naiz idazten. Kontua da, lau egunez jardunaldi horietan ibili den zenbait pertsonarekin hitz egiten aritu naizenean, arreta deitu didala hain jende jantziak ze gutxi zekien lehen astronauta espainiarrari buruz. Eta behin historia ezagutu dutenean, algaraka hasi dira. Pasa den asteko ARGIAren azaleko esaldia bezala da, pixka bat aldatuta: jendea Carrerori buruzko txisteeekin barrez hasten den edozein leku da nire herria. ●

Bidean

Aurrera egin nahi duen
irakaslearen dekalogo

Koldo Rabadan Izagirre



Liburua eskuratzeko: **azoka.argia.eus** (+34) 943 37 15 45

Bidean liburuaren aurkezpena eta solasaldia

Maiatzak 17 · 18:30 · Itziar Apaizetxean

Maiatzak 24 · 17:00 · Urretxu Gainzuri Ikastetxean

.....
Zure herrian hitzaldia antolatu nahi?

Idatzi **solasaldiak@argia.eus** helbidera eta berehala erantzungo dugu.

EUS
KA

MANIFESTAZIOA

RAU
RRE
RA

05/21

17:30

DONOSTIA

ANTIGUAKO TUNELA